

Kontzeju

www.oiñati.eus



berria oiñati



@berriaoiñati



oiñati



oiñati

DEGIK

Oñatiko Udal aldizkaria | 2016ko Otsaila | 258. zenbakia



OTSAILAK 22 - MARTXOAK 6

XX. INGURUMEN JARDUNALDIAK

Oñatiko anfibioak eta Parisko Klima Aldaketaren Goi Bilera izango dira aztergai besteak beste, Natur Eskolaren eskutik.

Osasun arreta EUSKARAZ

Osasun arreta euskaraz jaso nahi duten herritarren eskaerak bideratzeko ekimena egingo da Oñatin **otsailaren 17an**

Aitor Montes medikua eta Kepa Elortza euskaltzalearen ekimenez, osasun arreta euskaraz jaso nahi duten herritarren eskaerak bideratzeko kanpaina egingo da otsailaren 17an Oñatin. Udaleko Euskara sailak ere babesten du ekimena. Eskaria baldin badago, eskaintza etorriko dela diote eta animatu egin nahi dituzte herritarrak urrats hori ematera. Aitor Montes medikuak eman digu egitasmoaren berri.

Zein da Oñatin egingo duzuen ekimenaren helburua?

Idatzita ez dagoen legeak dioen moduan, 'Eskaerak eskaintza dakar, eta eskaintzak eskaera'. Hau da, osasun arreta euskaraz jaso nahi badugu, eskatu egin behar dugu. Beraz, herritarrak animatu edo adoretu egin nahi ditugu eskaera egitera.

Eta horretarako erraztu egin nahi diegu lana; hau da, osasun zentzora joaten ibili barik, guk prest ditugun formularioen bidez aitaren batean bideratuko ditugu eskaerak Osakidetzara, Elebide zerbitzuaren bidez.

Iaz Arrasaten egin genuen, eta arratsalde batean 800 eskaera bideratu genituen.

Azken batean, herritarrak kontzientziatu eta informatu nahi ditugu, gure hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko ditugun tresnak eta bideak erakutsiz. Helburua da, gero informazio hori ahalik eta gehien zabaltzea sare sozialen bidez, eta, poliki poliki, ahalik

eta sare zabalena sortzea.

Eskaera baldin badago, arian-arian etorriko da eskaintza, derrigorrez.

Urtetxo batzuk daramatzazu osasun zerbitzuetan euskara normalizatzearen alde lanean. Nola ikusten duzu egoera gaur egun?

Kualitatiboki aldaketa bat egon da, onerako. Hau da, gaur egun eragile guztiek onartzen dute hizkuntza (euskara edo beste edozein) eta kalitatea batera doazela, eta ez dela eskubide kontua bakarrik.

Baina, jakina, gauza bat da ebidentzia bat onartzea, eta beste bat hori inplementatzea edo egikaritzea. Tamalez, baliabide teknikoetan (aplikazio guztiak gazteleraz daude) eta giza baliabideetan ere ez gaude batere ondo; lan hizkuntza gaztelera da, barne harremanak gazteleraz dira... Beraz, badugu asko egiteko oraindik.



%4

Oñatin herritarren %4k bakarrik dauka euskara harremanetarako lehentasunezko hizkuntza bezala. Gainerakoek Castellano daukate, defektuz

Eskaerak egiteko tokia eta ordua

Osasun arreta euskaraz jaso nahi duten herritarrek otsailaren 17an izango dute aukera, arratsaldeko **17:00etatik 20:00etara**, Bidebarrieta kaleko 18an dagoen Erabilera Anitzeko Gelan (Euskalategi ondoan). Bertan egongo dira Aitor Montes medikua eta Kepa Elortza oñatiarra herritarren eskaerak bideratzen laguntzeko prest.

AITOR MONTES / Familia medikua

Eskaerarik ez badago, sekula ere ez da eskainiko osasun arreta euskaraz



Aitor Montes Aramaioko familia medikua da, eta nahi duten herritar guztiei euskaraz ematen die zerbitzua, bai ahoz eta baita idatziz ere.

Zein dira erronka nagusiak etorkizunera begira?

Lehenengo egitekoa, aurten bertan egin beharko litzateke, Lehentasunezko Hizkuntzaren Erregistroa da; hau da, jendeari galdetzea zein hizkuntzatan jaso nahi duen osasun arreta, eta eskaintza hori modu aktiboan egitea Osakidetzak berak.

Oñatin adibidez, herritarren %4k bakarrik dauka euskara lehentasunezko hizkuntza bezala, eta hori oso esanguratsua da Oñatiko herritarren %80 inguru euskalduna dela kontuan hartuz.

Erregistro hori funtsezkoa da herritarren gogoia zein den jakiteko eta lehentasunak zehaztu ahal izateko. Hortik aurrera kupo euskaldunak sortzen has gaitezke, adibidez.

Bestalde, osasun arloko profesionalen hautatze prozesuetan hizkuntz eskakizunak lehenetsi behar dira, eta, poliki poliki, zirkuitu euskaldunak sortuz joan, arreta espezializatua ere, arian-

arian euskaraz eskaintzeko. Debagoienean adibidez, abian da Urologiako euskarazko zirkuitua, eta aurrerapausu bat da.

Horrez gain, proba osagarri guztiak (odol eta gernu analisiak, ekografiak, erresonantziak...) ele bitan ematen hasi behar dugu, eta horretarako beharrezkoa da aplikazio informatikoak euskaraz egokitzea.

Lidergo dinamikoak eratu unitate guztietan, corpus-a sortu, unibertsitatean euskara eta hizkuntz kontzientzia txertatu... Askoko dago egiteko.

Mezu bat?

Jendea animatzea, adoretzea. Hezkuntza sistema euskaratzea lortu genuen herritarren ekime-nari esker, eta hurrengo urratsa osasungintza euskalduntzea izan behar da, lehen esan dudan moduan, kalitateari lotuta dago-elako euskara. Baina horretarako jendeak eskatu egin behar du; bestela ez dugu sekula lortuko. ■

ESKAERAK

1. Nire **historia klinikoa** (diagnostikoak, oharrak, proba osagarrien emaitzak, alta txostenak...) euskaraz nahi dut.
2. Harremanetarako **lehentasunezko hizkuntza** euskara izatea nahi dut, eta ildo horretan Osakidetzak eskaintza aktiboa egin dezala.
3. Arreta **espezializatuak**:
 - **Traumatologia** zerbitzua euskaraz eskaintzea eskatzen dut.
 - **Ginekologia** zerbitzua euskaraz jaso nahi dut.
 - **Kardiologia** zerbitzua euskaraz jaso nahi dut.
 - **Ekografiak** euskaraz jaso nahi ditut.
4. **Pediatría** zerbitzua euskaraz eskaintzea eskatzen dut.
5. **Erresonantzia** magnetikoen txostenak euskaraz jaso nahi ditut.

Eskaera hauek edo norberak interesgarritzat jotzen dituen beste eskaera batzuk bideratzeko orriak prest egongo dira otsailaren 17an.

(**) Herritarren eskaera aintzat hartuz, **odol eta gernu** analisisien emaitzak ele bitan bidaltzen hasiko da aurten Osakidetzak.*

SAN MARTIN GUNEAN

**GARAJEAK eta
ETXEBIZITZAK**

SALGAI

PROMOZIO BERRIA 2,3 eta 4 logela 169.235€ -tik !!



MOJASORO S.L. | Informazioa: 689 420 761 | Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net



Azkenengo udal SUHILTZAILEAK

1963ko maiatzaren 23an Donostian egin zen Suhiltzaileen I. Biltzarreko irudia. Espainiako eta atzerriko hiri ezberdinetako suhiltzaileek parte hartu zuten desfilean. Argazkian Oñatiko suhiltzaile taldea. Iñaxio Bikuña, Angel Egaña eta Carlos Aiastui 'Otxua' agiri dira. (Arg.: Paco Mari Kutzaren Fototeka)

1985ean zabaldu zuen Foru Aldundiak herrialdeko lehen suhiltzaile parkea Zubillagan. Gaur egun halako 8 daude Gipuzkoan, eta 230 bat profesional behar bezala prestatuta eta ekipatuta. Baina garai bateko egoera oso bestelakoa zen. Herritarrek nola edo hala moldatu behar izaten zuten suteei aurre egiteko, eta poliki poliki udal suhiltzaile taldeak sortuz joan ziren XIX. mende bukaeratik aurrera. Baita Oñatin ere. Udal suhiltzaile taldeak Zubillagako parkea zabaldu arte funtzionatu zuen, eta bertan 25 bat urtez aritu zen Angel Egañak azaldu digu nola egiten zuten lan.

Noiz eta nola sartu zinen udal suhiltzaile taldean?

1960 aldera sartu nintzen ni, 35 urterekin. Joxe Maiztegi zen suhiltzaile taldeko burua, eta kuadrillako laguna zenez, berak esanda sartu nintzen. Dena den, aurretik ere makina bat sute itzaltzen ibilia nintzen bolondres edo boluntario moduan.

Zenbat lagun zineten udaleko suhiltzaile taldean?

Zortzi bat lagun ibiltzen ginen: Joxe Maiztegi, Esteban eta Luis Romano anaiak, Etor Moyua, Carlos Ayastui 'Otxua', Eusebio Atxaga, Javier Kortabarria, Juan

Mari Murua, Iñaxio Bikuña, Jose Miguel Erostarbe eta neu. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, baina horietxek ibili ginen. Arduradun moduan Marcos Arrazola zinegotzia izan genuen urte askotan.

Baina ez zen inor profesionala ezta?

Ez. Nik Garay fabrikari egiten nuen lan, beste batzuk piletan... Bakoitzak bere lana zuen. Suterren bat gertatzen zenean tailerrera deitzen ziguten, eta ahalik eta azkarren joaten ginen.

Su-kanpaiak ez ziren jotzen?



Araotzeko baserri bateko sutea itzaltzeko lanetan (Argk.: Udal artxiboko Andrés Arlanzón funtsa)

Hasierako urteetan bai, baina gero utzi egin zitzaion kanpaiak jotzeari, bestela traba egitera joaten zelako jendea.

Formazio berezirik jaso al zenuten?

Ez. Aurretik boluntario moduan ibiliak ginenez, bageneukan esperientzia pittin bat. Gainera, tarteka (hiru astean behin-edo) maniobrak egiten genituen, eskua hartu eta, bide batez, materialaren mantenimendu lana egiteko.

Zer material zeneukaten?

Bi motobonba; bat handia, 60mm.-ko mangerarekin, eta bestea txikiagoa, 45mm.-ko mangerarekin. Txikia baserri inguruetan erabiltzen genuen; maneiatzeko errazagoa zen eta, gainera, presio handia zeukan. Extintoreak ere bagenituen.

Eskailera handi bat ere baze-neukaten, ezta?

Bai, errueda eta guzti, 25 bat metroko altuera hartzen zuen.

Horrekin berehala dominatzen genituen etxeetako teilatuak. Baina herri barruan, edo bidea zegoen lekuetan bakarrik erabil zitekeen, kamioiari lotuta eram- man behar izaten zen-eta.

Eta erropak?

Botak, kaskua eta gerrikoa, beharrezko erreminta danakin: aizkora, sokak... Aurrerago bonbero traje bat egin ziguten, baina, askotan, laneko buzoa- rekin joaten ginen, ahalik eta azkarren iristeko.


Ura lortzeko nola moldatzen zineten?

Herri barruan ez zen arazorik izaten. Oñatin ur hartune asko genituen, zorionez. Baserri inguruetan berriz, putzu eta erreketatik hartu behar izaten genuen; atxurrekin zuloa egin eta mangera sartuta.

Ur deposito bat ere eram- ten genuen kamioian, baina txikia zen; lehenengo kolpea emateko.

Edozein modutan, askotan

Arriskua beti egoten zen, bai, baina ikusi ez; gazteak ginen eta beldurrik arrastorik ere ez. Zapia aurpegian jarrita ibiltzen ginen ke artean edo teilatu puntara igota



extintoreekin itzaltzen genuen sua, ura erabili gabe. Ahal zela, extintoreekin sartzen ginen eta askotan lortzen genuen sua ez zabaltzea.

Sarri gertatzen al ziren suteak? Sarri samar, bai. Orduko etxe gehienak egurrezkoak izanik, polborinak ziren. Instalazio elektrikoak ere nolana hikoak izaten ziren, sukalde zaharrak, tximiniak...



“Borondate on guztiarekin joaten ginen, edozein gauza egiteko prest”

ANGEL EGAÑA / Udal suhiltzailea 1960tik 1985era

Gogoratzen al duzu batenbat bereziki?

Mizkin baserrikoa. Ezinean ibili ginen; urik ez, haizea gogor... Erre egin zen baserria eta bertako ugazaba ere hil egin zen. Neuk aurkitu nuen ganaduen ondoan. Herri barruan ere gogoratzen ditut sute handi samarrak: Txarridunean, Naparrenean, Sabasenean...

Zeuk ere bizi izango zenuten arrisku unerik, ezta?

Bai, arriskua beti, baina ikusi ez, gazteak ginen-eta. Zapia sudurrean jarrita ibiltzen ginen ke artean, negarra dariola. Inoiz zorabioren bat izan genuen, baina istripu larrik ez.

Gazteak ginen eta beldurrik arrastorik ere ez. Eskailerarik ezin zenean erabili aidian igotzen ginen teilatu puntara sokarekin pultsuan.

Arrasatera ere joaten zineten, ezta?

Bai. Arrasatek ez zeukan su-hiltzaile talderik, eta birritan behintzat, geu joan ginen. Eibarko suhiltzaileak iritsi orduko dominata geukan sua.

Sua itzaltzeaz gain, bestelako lanak ere egiten zenituzten, ezta?

Bai. Elur garaian geuk garbitzen genituen herri barruko kale eta espaloiak, eta uda partean ere bai, askotan, mangerekin, maniobrak egin alde. Urhodiak ere geuk garbitzen genituen.

Ur haundiak izan zirenean ere geu ibili ginen errekan, urak ermandako mutikoaren bila. Beste behin, goardia zibilaren land rover-ean sartuta ikurrin bat kentzera joan behar izan genuen Arantzazura.

Soldatarik edo saririk jasotzen al zenuten suhiltzaile lanaren truke?

Ez. Maniobrak egin ostean hamarretakoren bat ematen ziguten, eta, tarteka, afariren bat Luisenean edo Anttonenean. Azken aldera, diru-sari bat ere jarri zigun Udalak, urtean bat, baina hutsa izaten zen; orduko barrendero baten hileko soldatara ere ez zen iristen.

Zer oroitzapen gordetzen duzu?

Onak! Izan ere, borondate on guztiarekin joaten ginen gu, edozein gauza egiteko prest. Garai harteko bitartekoak kontuan hartuta, lan txukuna egiten genuen. Sua gehiago ez zabaltzea behintzat lortzen genuen.

Suteen aurkako ERMANDADEAK

Euskal Herrian eta Espainian zehar, oro har, 1870etik aurrera hasi ziren tokian tokiko udalak suteak itzaltzeko erantzukizun osoa bere gain hartzen, eta ordutik aurrera hasten dira agertzen suhiltzaile taldeen eginkizun eta betebeharrei buruzko lehen ordenantzak. Oñatiri dagokionez, 1899koa da udal artxiboan aurkitu dugun ordenantzarik zaharrena (*Reglamento del Cuerpo de Bomberos / Sig. Z 203.7*).

Aurretik ez dakigu nola antolatzen ziren suteei aurre egiteko, baina jakin badakigu suteen aurkako ermandade bat egon zela Oñatin. Udal artxiboan aurkitu dugun agiri zaharrena (*Constitución de una hermandad contra los incendios / Sig. Z 203.10*) XVIII. mendekoa da (data zehatzik ez du) eta bertan erreferentzia egiten zaio 1708ko ordenantza zaharrago bati.

Agiri horretan irakur daitekeenez, sarri gertatzen omen ziren ustekabeko suteak, ondorio latzekin: kiskalitako etxe eta baserriak, miseria gorrian geratutako familiak, etxea bereraikitzeke ondasunik gabe...

Horren aurrean, ermandade edo suaro bat eratzea erabaki zuten, erretako etxe edo baserriaren jabeari diruz laguntzeko helburuarekin. Ildo horretan, 1801eko dokumentu batean (*Rol de la Hermandad de Incendios de la Villa / Sig. Z 203.11*) ermandadea osatzen duten baserri eta etxeen zerranda jasotzen da, auzoz auzo, etxe-jabeen edota bertan bizi diren maizterren datuekin, eta bakoitzari dagokion kuota (4 edo 8 erreal) zehaztuz.

1904ko dokumentu batek (*Reglamento de la Hermandad Oñatiense de Seguros contra Incendios / Sig. Z 203.12*) ermandadearen funtzionamendurako araudia jasotzen du. Bertan zehazten da, besteak beste, zein etxe eta zenbat dirutan aseguratuta izango den (20.000 pezeta gehienez, eta 500 gutxienez, etxeen ezaugarrien arabera), eta bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota. Bertan aipatzen da, baita ere, ermandadeak motobonba bat erosi duela, eta enkargatu bat izendatzea erabaki dela; bere ardura izango da motobonba beti prest mantentzea, eta 16 laguneko taldea gertu edukitzea larrialdi kasuetarako. Hauentzako ordainsariak ere zehazten dira. Beste puntu batean esaten da, aseguratutako etxeetako jabe edo maizterrek argiontzi edo farol itxiak erabili beharko dituztela ukuluko lanetan, 5 pezetako isuna jaso nahi ez badute.



ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak


Kale Barria, 54 OÑATI



Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Sociedad Española de Industrias Ferroviarias

1928an, Doroteo Arrazola alkate zela, suteei aurre egiteko eskailera erosteko lehiaketa publikoa deitu zuen Udalak, eta ezkerreko irudikoa bezalako bat erosi zion, 'Magirus E.I.' markakoa, Irungo *Sociedad Española de Industrias Ferroviarias* enpresari, 5.300 pezetatan. Beheko argazkietan, mangerak eta motobonbak garraiatzeko udal suhiltzaileek erabiltzen zuten karroa ikus daiteke.



Sei lagunek osatutako inspektore taldea egongo dela ere jasotzen du araudiak, ermandadearen zerbitzua ahalik eta egokiena izan dadin.

UDAL SUHILTZAILE TALDEA

Goian esan dugun moduan, XIX. mende bukaeran hasi ziren Udal Suhiltzaile Taldeak eratzten, eta Oñatiko lehenengo erreferentzia 1899ko araudia da. Suhiltzaile taldea alkatearen ardurapean egongo da eta 8 lagunek osatuko dute: argi eta ur zerbitzuko langilea (kapataza), lau sereno, bi barrenderoak eta enterradorea.

Ordainsariak ere zehazten dira. Sute bakoitzeko, kapatazak 25 pta. jasoko ditu, eta gainerakoek 15na. Entsaio edo maniobra egunetan berriz, kapatazak 6 pta. eta gainerakoek 4na. Behar bezalako justifikatu gabeko hutsegite kasuetarako 10 pta.-ko isunak finkatzen dira arudian.

1927ko ordenantza bat ere (*Reglamento para el Servicio de Bomberos de la Villa de Oñate / Sig. Z 203.8*) aurkitu dugu udal artxihoan. Bertan esaten da 7 lagunek osatuko dutela suhiltzaile taldea: bi arotz (zerbitzuburuak), bi hargin, udaleko ur

zerbitzuko langilea eta bi barrenderoak. Dokumentu berean, suhiltzaileentzako materiala (extintoreak, sokak, aizkorak, baldeak...) eta kaskoak erostea onartzen da, 1.500 pezetako aurrekontuarekin.

1930ko hamarkadatik aurrera, udal suhiltzaile taldeen osatura aldatzen hasten da, eta gremioetako langileetan oinarritu gabe, egitura iraunkorragoak sortzen hasiko dira, egitekoak, ardurak eta erantzukizunak finkatuz, baina profesionalizaziotik urruti oraindik ere.

Gerra osteko arazo ekonomikoek murrizketa handiak eragin zituzten udaletako aurrekontuetan eta, ondorioz, suhiltzaile taldeek ere oso modu prekarioan egin behar izan zuten aurrera, oso bitarteko gutxirekin.

1954an, Reyes Korkostegi alkate zela, berriro jarri zen martxan udal suhiltzaile taldea, 9 herritar bolondresez oastua, motobonba, mangera, extintore eta bestelako materialez hornitua. *Consortio de Seguros de Incendios* aseguro etxearekin egindako akordioaren bidez lortu zuen udalak finantziazioa. Suhiltzaile talde honek 1985era arte funtzionatu zuen, Foru Aldundiak Zubillagako parkea zabaldu zuen arte.

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

ETXEBIZITZETAN ALKERARIK HANDIENA

- San Martinen
- Kurtzekuan
- Kasablankan

PREZIO BEREZIAK!!

1 metro lehenetara

Ramón Irizar kalea 2 • OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

NEPAL ez ahaztu LAGUNDUZ

Elkartasuna eta Oñatiarren elkarlana

azko maiatzaren 12an lurrikara indartsu batek astindu zituen Nepaleko lurrak. Hurrengo hiru asteetan zehar ere hainbat erreplika izan ziren. Eta ondorioak gogorak izan ziren Nepaleko biztanleentzat: monumnetu garrantzitsuenak erorita, errepideak suntsituta, etxeak birrinduta, hildakoak nonahi...

Berehala piztu zen mundu osoan Nepalekiko elkartasun olde haundi bat, eta baita Oñatin ere.

2015eko maiatzaren 25ean talde bat bildu zen Oñatiko Turismo Bulegoan: zenbait herritar norbanako, Debagoieneko nepaldarrak eta Oñatiko talde eragile ezberdinetako ordezkariak, hala nola, Txantxiku Ikastola, Elkar Hezi Ikastetxea, Aloña Mendiko Mendi saila, Mendiak eta Herriak Mendigidari Elkarteak, Mundu Solidarioa, eta bilera deitu zuten Felipe Uriarte eta Urko Egaña.

Horrela sortu zen **Nepal Lagunduz Taldea** eta geroztik orainarte, poliki bainan etengabe lanean aritu izan dira. Helburu nagusia dirua biltzea izan da ondoren diru hori Nepalerruntz bideratu ahal izateko.

Nepal Lagunduz taldearen ardura edo arreta berezia jarri du batutako dirua benetako beharra dagoen lekuetara iritsi dadin, eta garbi izan dute hasieratik, ezagutzen dituen konfiantzazko pertsona eta taldeen bidez bideratutako zutela dirua, bidean galdu ez zedin.

ELKARTASUN JARDUERAK

Taldearen eta egitasmoen aurkezpena presntsaurrean egin ondoren, ekainaren 10ean diapositiba emanaldia antolatu zuten kultur etxean, Euxebio Novoaren eskutik. Handik bi egunera, pintxo-pote solidarioa egin zen, Debagoieneko nepaldarren komunitatearen laguntzarekin.

Gero, ekainaren 15etik 30era Felipe Uriarteren argazki erakusketa antolatu zuten Turismo Bulegoan eta, gainera, itsulapiko solidarioak ipini zituzten turismo bulegoan, kultur etxean, kiroldegian eta Urbiako fondan.



Ezkerretik hasita, Txetzi Puti, Gaga Temba eta Pasang morroia.

Oñatiko **Nepal Lagunduz Taldeak** 6.000 euro batu ditu. Diru horren erdia *Chaurikharka* herrixkako bi familiaren etxeak berreraikitzeke erabiliko da.

 **MODA BEREZIA**
Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheak • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



Ezkerrean, Gaga Tembaren behin behineko bizilekua. Goian, Ringi Kantsa otordua prestatzen bere etxeo sukaldean.

'NEPAL LAGUNDUZ' KAMISETAK

Azaroan elkartasun kamisetak prestatzen hasi ziren eta abenduaren 18an plazaratu zituzten.

Kamixetarena Nepal Lagunduz Taldearen elkarlanerako joeraren adibidea nabarmena izan da: Txantxiku ikastolako Roberto Maiztegi eta Rafa Guridiren artean landu zuten diseinua, eta Elkar Hezi ikastetxearen azoka solidarioan saldu zen.



NEPALEN ALDEKO KAMISETAK SALGAI

Nepalen aldeko kamisetak turismo bulegoan daude salgai: umeena 10€, helduena 12€

Wongchhu Sherpa, 13 eta 5 urtekoak.

Horrelako etxe bat bereraikitzeko 200.000 rupia (1.762€) behar dira. Beraz, Oñatitik bidalitako laguntzarekin familia horren bi etxeak berreraikiko dituzte.

Gainerako 2.500 euroak, Manaslu (8.070 m.) inguruan dagoen *Gorkha* ekualedeko *Dole* herrira bideratuko dute. Lurrikarak era latzean jo zuen inguru hartan, eta *Dole* ia desagertu egin zen. Orain ondoan herri berria eraikitzen ari dira hainbat laguntzarekin. Tartean dago *Mountaineers for*

6000 EURO BIDALI NAHIAN

Hilabete hauetan egindako lanaren fruitua ederra izan da: 6000€ bildu dituzte. Eta orain ederrena gelditzen zaie, diru hori behar den tokira bidaltzea.

Lehendabiziko diru puska (2.500€) bidalita dago jada, *Chaurikharka* izeneko proiekturako. *Chaurikharka* herrixka oso ezaguna den *Lukla* Goimendiko Aireportutik hurbil dago, 15 minutura, *Dudh Kosi* Himalaiako Ibai haundiaren goikaldean eta 2700 metroko altueran. Lurrikarak erabat suntsitu zuen herri hau eta etxe guzti guztiak erori ziren.

Oñatiarron dirulaguntza *Ringi Kantsa* eta bere gurasoen *Txetzi Puti Sherpa* (ama) ta *Gaga Temba*-ren etxeak bereraikitzeko erabiliko da. *Ringi Kantsa* eta bere senarra *Pemba Lamu Sherpa*, bi semetxo dituzte: *Fursonam Sherpa* eta

Himalayas Foundation, non, besteak beste, Edurne Pasabanen inguruko talde euskaldun bat eta Andorrako lagun talde bat dagoen, eta hauen bitartez bidaliko dute dirua.

KONTZERTUA ETA EVERESTERA TREKINA

Nepal Lagunduz Taldeak lanean jarraitzeko asmoa du. Hala, otsaila-martxo inguruan Jean Mixel Bidexahar iparraldeko kantariaren kontzertu bat antolatzeko lanean ari dira.

Bestetik Elkartasunaren Trekking bat ere antolatzeko asmoa dute, Mendiak eta Herriak mendigidari elkartearen laguntzaz. Ibilaldia ezin erakargarriago da; antzina Everest mendira iristeko erabiltzen zen ibilaldia, *Jiri*-tik abiatu, 8 bat egunetan beheko bailaretan gora ta behera ibiliz, *Chaurikharka* eta *Lukla*-ra iritsi, *Ringi Kantsa* eta *Gaga Temba*-ren etxeak bisitatu eta beste 8 egunetan Everesteko Beheko Kanpalekuraino hurbildu, *Kala Pattar* mendigailurreraino (5.545 m.), Everest aurrez aurre. Udaberrian edo udazkenean egiteko aukera egongo da. Informazioa: info@mendiaketaherriak.eus /948513233.

Nepal Lagunduz taldeak eskerrak eman nahi dizkie Cartonajes Arregi, Juan Zelaia, Roberto Plazaola, Udal gobernu taldea eta modu batera edo bestera lagundu duten oñatiar anonimo askori.

Euskal Herriko gaztetxeen topalekua izango da Oñati asteburu batez

» **Gaztetxe eta Gazte Asanbladen topaketak egingo dira otsailaren 19, 20 eta 21ean**

Iaz, aspaldiko partez, Laudion egin ziren Euskal Herriko gazte asanblada eta gaztetxeen arteko topaketak, eta era honetako ekimenen garrantzia azpimarratu zuten, elkarlanerako abiapuntu gisa. Hala ere ez zuten aurrera begirako ezer martxan jarri.

Aurten Oñatiko gaztetxeak heldu dio erronkari, iaz Laudion hasitako bideari segida emateko asmoz. Antixena gaztetxeak egindako deialdiak oihartzun zabala izan du eta hala, Euskal Herriko txoko desberinetako gaztetxe eta gazte asanbladetako ordezkariak batuko dira Oñatin otsailaren 19, 20 eta 21ean.

Besteak beste, Lizarra, Iruña, Barañain, Baztan, Lesaka, Bilbo, Santutxu, Gernika, Galdakao, Orduña, Laudio, Gasteiz, Tolosa, Beasain, Azpeitia eta Aramaioko gaztetxeetako ordezkariak batuko dira Oñatin. Zaila da oraindik kopuru zehatzik ematea, baina 300 hat partaide espero dituzte antolatzaileek. Gaztetxean eta Elkar Hezi ikastetxeko geletan egingo dituzte lan bilerak, eta Gaztelekuan egingo dute lo.

EUSKAL HERRIKO GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADEN ARTEKO TOPAKETAK
OTSAILAK 19 - 20 - 21 | OÑATI

OTSAILAK 19. Ostirala

- 17:30 Baraia
- 18:30 BARRU INGIURIA: "Eure jobuz alor" erakuslan lehiaketa
- 19:00 Oñatiko Asteleku
- 20:00 DOKUMENTAL IRANAN DIA: "Problema azalduak azalduak dira berri"
- 21:00 Kartzela. MOR MORE

OTSAILAK 20. Larunbata

- 10:00 KULTURAREN ESTANDUAK BOKERRA: Asanbladen Antolatzaileak... ordezko erakunde, antena hartzaileak ordezko
- 13:00 PIRATERIA
- 14:30 BAZTAN: ordea gazteak... lagunen eskutik
- 16:30 ERAGINTZETA EMERREK: gure aldiaren erakunde erakundeak... erakundeak eta erakundeak
- 19:00 MANIFESTAZIOA gaztearen alde
- 21:30 JAZAUA: TRIBUAKU, FACHAS, PILAR EIA COWBOY Y ORQUESTRA DE GEL

OTSAILAK 21. Igandea

- 11:00 Oñati jate eta hitzaldiak

TABERNA • JATEAK

Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Asanbladak eta gizarte alternatibak EZTABAIDAGAI

Oñatiko topaketak prestatzeko bi bilera egin dituzte gaztetxe ezberdinetako ordezkariak, eta bertan zehaztu dituzte lan ildo nagusiak. Gazte asanbladek dituzten arazo eta erronkei aurre egiteko tresnak sortzea da topaketaren helburua, eta bi ardatz nagusi izango dituzte hausnarketarako: asanbladak eta alternatibak.

Asanbladak daude gaztetxeen funtzionamenduaren oinarrian, eta, horregatik, kezka-iturri nagusietako bat izaten da; nola funtzionatzen dute asanbladek? Harreman parekideak al ditugu bertan? Nola kudeatzen ditugu belaunaldi aldaketak? Harreman horizontalagoak lortzeko bidean nola ari gara? *Guetto* izaera nola ekidin dezakegu? Eta antzeko galderak landuko dituzte.

Alternatiben gaia ere oso presente dago azkenaldian gazte mugimenduetan. Sistema kapitalista eta patriarkalaren alternatiba izateko sortu ziren gaztetxeak, baina aisialdi eredu alternatibo bat eskaintzera mugatu barik, sozio-ekonomian eta bizitzako beste esparru batzuetan eragiteko dauden aukerak aztertuko dituzte.

Eztabaida-hausnarketa saioak gidatu eta dinamizatzeke, herri mugimenduen funtzionamenduan adituak diren Joxemi Zumalabe fundazioko kideen laguntza izango dute. Aurrera begira dinamika iraunkor eta eraginkorrak sortzea da helburua



Gaztetxeen aurkako erasoak salatzeko MANIFESTAZIOA

Topaketekin batera, azken aldia gaztetxeen aurka ematen ari diren erasoak (Kortxoenea, Ezpala...) erantzuteko kanpaina bat jarriko dute martxan. Hala, larunbatean (otsailak 20) manifestazioa egingo dute Oñatiko kaleetan, 'Gaztetxeak aurrera!' lelopean. "Gazteon zapalkuntzaz probesten direnen aurrean, gazteon ahalduntzerako eta bestelako bizi eredu bat sortzeko gaztetxeak ezinbesteko bitarteko direla aldarrikatuko dugu" adierazi dute.

Gainera, aldarrikatetik haratago, erresistentziarako tailer praktikoa ere egingo dute, ikuspegi juridiko, komunikatibo eta fisikotik.

Eztabaida eta hausnarketa saioez gain, elkar ezagutu eta ondo pasatzeko aukera ere egongo da asteburuan zehar (Ikusi egitaraua 10. orrian).

'Torturaren Ikerketa Proiektua'

Oñatiko Euskal Memoria Taldeak gonbidatuta, Torturaren Ikerketa Proiektuari buruzko hitzaldia emango du Paco Etxeberriak

Paco Etxeberria antropologo-forentseak Torturaren Ikerketa Proiektuaren gaineko argibideak emango ditu Oñatin otsailaren 18an. Besteak beste, azalduko du, gaur egun zein egoeratan dagoen ikerketa, datuak jasotzeko zein metodologia erabiltzen ari diren, zein arlotako ikerlariak dabilzan lanean, zenbat testigantza jaso dituzten, nola egiaztatzen dituzten testigantzak (Istanbulgo protokoloa), zein helburu duen ikerketa honek...

Izugarrizko ikerketa lana ari dira egiten, eta proiektuaren gaineko xehetasun gehiago izan ditzagun eta herritarrek ikerketaren nondik norakoak ezagutu ditzaten, antolatatu du berbaldia Oñatiko Euskal Memoria Taldeak.

Gogoratu, duela urte batzuk Oñatiko Euskal Memoria taldea bera ibili zela torturaren gaia lantzen, eta hainbat datu eta testigantza batu zituztela. Bada, orduan batutako datu eta testigantzak ikerketa potolo honetan barneratuko dira orain eta, beraz, garrantzitsua da proiektuaren berri izatea.



HIZLARIA: Paco Etxeberria

GAIA: Torturaren Ikerketa Proiektua

EGUNA: Otsailak 18, osteguna

TOKIA ETA ORDUA: Santa Ana aretoa, 19:00



LOGOA eta SEINALETIKA berrituko dituzte kiroldegian



Udal Kirol sailak Zubikoa kiroldegiko seinaletika berritzea erabaki du. Gaur egungo karteldegia zaharrituta dago eta, askotan, kanpotik etortzen den jendea batez ere, galduta edo noraezean ibiltzen da. Are gehiago kiroldegiko bigarren kantxa eraiki zenetik.

Beraz, kiroldegiko irudia gaurkotu eta, batez ere, komunikazioa hobetzeko asmoz, seinaletika berritzea erabaki du bertako zuzendaritzak.

Arrasateko Adox komunikazio enpresak egin du karteldegi berriaren diseinua, eta enpresak berak aholkatuta, kiroldegiko logoa ere berritu dute, ikur zaharraren *restyling* bat eginez, Zubikoako komunikazioa bateratu eta irudiari nortasuna emateko asmoz.



Zubikoa kiroldegiko gaur egungo logoa

Seinaletika berritzeaz gain, bulegoetako kristalak biniloz apainduko dituzte, eta kiroldegiko gune ezberdinetan dauden informazio panelak ere berrituko dituzte, eta, ziurrenera, kanpoaldeko orman ere jarriko dute orientazio panel handi bat. Udalak 6.000 € bideratuko ditu seinaletika berritzera, eta otsailaren erdirako aldaketa eginda egotea espero dute.

Goiko infografian eta ezkerreko irudian ikus daiteke Zubikoa kiroldegiko seinaletika berriak izango duen itxura.



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

PINTURAS URBIA MARGOAK



Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

PUBLIZITATEA KIROLDEGIAN

>> Kiroldegian publizitatea jartzea arautzen duen ordenantza onartu du Udalak

Zubikoa kiroldegian publizitatea jartzeagatik tasa arautzen duen ordenantza onartu du udalbatzak.

Publizitatea kiroldegiko kantxa nagusiko hormetan bakarrik jarri ahal izango da, oraingoz behintzat; ekialdeko horman lehenengo (lehiateriaren azpian), eta hau beteko balitz, iparraldekoan (markagailua dagoen paretan), 2,5 metrotik gorako altueran, kasu honetan.

Bi motatako euskarriak onartuko dira: PVC edo aluminiozko konposite panel zurrunak (euskarri finioen bidez paretan lotuko direnak), edo plastifikatutako lona edo binilo erako euskarri malguak. Azken hauek 2,5 metrotik gora bakarrik jarri ahal izango dira.

Euskarriak erostea, jartzea eta mantentzea irakargiaren promotorearen kontura izango da.

TAMAINAK ETA TASAK

Iragarki taula edo panelen gutxieneko neurria 2m²-koa izango da, eta gehienez 10m²-koa. Ordaindu beharreko tasa, iragarkiaren tamainaren eta iraupenaren arabera izango da. Hala, 2m²-ko iragarki baten tarifa 200€-koa izango da, urtebeterako bada, 350€ bi urterako bada, eta 500€ hiru urterako bada.



2m²-ko iragarki baten
tarifa 200€-koa da,
urte baterako bada.

Iragarkiaren tamaina handiagoa bada, oinarrizko tamainatik gora kontratatutako 2m² bakoitzeko %15eko hobaria aplikatuko da. Hauteskunde garaian alkate dekretu bidez arautuuko da publizitatearekin zerikusia duen oro.

HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

Euskararen erabilera normalizatzeko udal araudiari jarraiki, publizitatea euskaraz egingo da, eta ele bitan egin beharra ikusten denean, beti euskarari emango zaio lehentasuna.

Kiroldegiko kantxan publizitatea jartzeko eskaerak udal bulegoetan aurkeztu behar dira, euskarri publizitarioaren tamaina, forma, materiala, kolorea eta edukia argi eta garbi identifikatzeko behar den dokumentazioarekin.

Kiroldegiko publizitatea arautzeko ordenantza GAOn argitaratu da, eta alegaziorik ez bada, otsailean bertan sartuko da indarrean.

ZELAIK ONATI
(1977ko sortzaia)

LIKIDAZIOA

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak

Euskadi Erumidea, 1 • Onati • Tel.: 943 78 04 94 / 943 78 29 00

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTIAN KOMPONKETAK
PESKARRAK, LANTZAK, UNO FORTAK, ANTIK, PINTURA LANTZAK...

DISCERNITIAK ETTA MONTAJAZIAK DA.
BONITATIAK, BARRIOAK ETA ASANATZAK DA.
GELATIAK 12.00 €tik - 200.000 €tik - GUTXIKOAK
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Mozkon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorris: 620 77 66 20

ETXEBIZITZA BABESTUA

Gizartetik baztertutik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako ostatu zerbitzua prestatu du udalak

Gizarte zerbitzu edo baliabide berri bat jarriko du martxan Udalak laister: gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako Etxebizitza Babestua, hain zuzen. Lau logeladun etxebizitza bat da, Errekaldeko 31 zenbakiko hirugarren solairuan (garai batean Errekaldeko maixu-maistren etxea izan zena).

Ia prest dago zerbitzu berria; logelak altzariz hornitzea bakarrik falta da eta, beraz, martxorako funtzionamenduan egongo da, ziurrenera.

Era honetako ostatu zerbitzua jasota dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Legean, eta bertan zehazten da tokian tokiko udalek eskaini beharrekoa dela. Azken batean, baliabide berri bat da gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonekin lan egiteko, eta beraien integrazioa (familiarra, laborala, ekonomikoa, soziala...) bideratzen laguntzeko.

EGONALDI MOTZ-ERTAINEN OSTATU KOLEKTIBOA

Etxebizitza Babestuak egonaldi motz-ertaineko ostatu kolektiboa

HELBURUA

Erabiltzaileen integrazioa (familiarra, laborala, soziala...) bideratzen laguntzea da zerbitzu berri honen helburu nagusia. Horretarako, Arreta pertsonalizatuko plan bat prestatuko zaie, gizarte langileen tutoretzapean



Errekaldeko 31 zenbakidun atariko 3. solairuan prestatu du Udalak etxebizitza babestua. Lau logeladun etxebizitza bat da.



MAPFRE
Oñati

Paritu kalea, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 65

ARRI *Orain Oñatiarren zerbitzura!*

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

eskaintzen du. Oñatiko kasuan, etxebizitzak lau logela ditu, bakoitza bere giltzarekin, bizilagunen intimitate eskubidea bermatzeko. Horrez gain, sukaldea eta bainu-gela ditu, bizilagunen artean partekatzen. Bizilagun bakoitza arduratuko da bere gela garbitzeaz, eta etxearen beste garbiketa guztiaz Udala arduratuko da.

Etxebizitza babestuan egoteko denbora zehazteko, erabiltzailearen egoera eta eboluzioa hartuko da kontuan. Gehienez 2 urtekoa izango da egonaldia, baina luzatu egin ahal izango da, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako profesionalak egoki ikusten badute.

Erabiltzaileek 2,10 euro ordainduko dute eguneko (garbiketarik eta beste gastu batzuegatik). Horrez gain, elikagai edo janari zerbitzua jaso nahi duenak 12 euro ordainduko du egunero. Edozein modutan, erabiltzaileak bermatuta edukiko du beti erabilera libreko gutxieneko diru-kopuru bat.

ARRETA PERTSONALIZATUKO PLANA

Erabiltzaileen integrazioa (familiarra, laborala, soziala...) bideratzen laguntzea da zerbitzu edo baliabide berri honen helburu nagusia.

Horretarako, Arreta Pertsonalizatuko Plan bat (APP) programatuko zaio erabiltzaile bakoitzari, erreferentziazko gizarte langilearen tutoretzapean. Hala, etxebizitza babestuaren erabiltzaileei eskatuko zaie Lanbiden izena emanda egotea, eta lanerako prestakuntza ikastaroetan parte hartzea, lan eskaintzei uko ez egitea, atzerritarra izanez gero legezko egoera erregulartzatzea, Helduen Eskolara edo Euskaltegia joatea, beharren arabera...

SARTZEKO BALDINTZAK

Etxebizitza Babestuan sartu ahal izateko 18 urte beteta eta EAEn erroldatuta egon behar da, eskaera-data baino 6 hilabete lehenagotik. Lehentasuna izango dute Oñatin sustraituta dauden pertsonak, edota bertan familia loturak dituztenak.

Etxebizitzan sartzeko eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak baloratuko du eskatzailea gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagoen ala ez, horretarako Jaurlaritzak daukan balorazio tresna erabiliz.

Benita Elorzak 100 urte bete ditu

Zelai Zabaleko Benita Elorza Telleriak ehun urte bete zituen urtarrilaren 12an, eta ohiturari jarraituz, Mikel Biain alkateak eta Susana Altuna udaleko gizarte zerbitzuetako buruak, lora sorta eta oroigarri bat oparitu zioten herritaren izenean. Mugikortasuna galdu badu ere, burua oso argi du oraindik Benitak, eta pozik ospatu du men-deurrena etxekoz inguratuta.

AURTEN BESTE HIRU

Aurten beste hiru herritarrek beteko dituzte 100 urte: Gestatzako Ascension Arregik ekainaren 1ean, Pedro Irizar Guridik ekainaren 29an eta Regino Biain Guridik irailaren 7an. Gogoratu, ehun urtetik gorako beste sei herritar ere bizi direla gaur egun: Maria Aranburu (100), Angela Larrañaga (100), Felisa Zubia (101), Josefa Lizarralde (101), Petra Agirrezabal (101) eta Francisca Blazquez (103).



‘BiziPoz - Zahartze Aktiboa’

55-75 urte arteko herritarrei zuzendutako programa jarriko du abian Udalak, Enpresagintza Fakultateko ekintzaile talde baten laguntzarekin. Zahartze aktiboa sustatu nahi da.

Enpresagintza fakultateko *Mondragon Team Academy* ekintzailetasun graduaren baitan sortutako ‘Want’ Junior enpresaren ekimenez, ‘BiziPoz-Zahartze Aktiboa’ izeneko programa jarriko du abian Udalak.

55 eta 75 urte arteko gizon-emakumei zuzendutako proiektua da, eta taldean lana eginez, herrirako interesgarriak diren proiektu sozialak sortu eta aurrera eramatea da helburua, adin horretako pertsonen jakituria eta esperientzia baliatuz, zahartze aktiboa sustatuz.

Bi hilabetetan zehar (martxoa eta apirila) garatuko da egitasmoa. Astean tailer bat egingo dute, proiektu sozialak sortu eta horiek aurrera eramateko behar diren baliabideetan trebatzeko. Lan autogestionatua, lidergoa, sormena, ekimena eta ikuspuntu globala bezalako trebetasunak landuko dituzte, *Want* enpresako adituen laguntzarekin.

Nahi duten herritar guztiek parte har dezakete. Ez da beharrezkoa titulazio akademikoa. Herriaren alde lan egiteko gogoia eta konpromisoa bakarrik behar dira.

**Proiektuan parte hartu nahi dutenek 638 516 973
telefonora deitu behar dute, edo ongizate@onati.eus
helbidera mezu bat bidali**



EH Bilduren udal gobernu taldeko kideak agintaldiko Plangintza Orokorraren aurkezpen ekitaldian

AGINTALDIRAKO EGITASMOAK

2016-2019 urteetarako Plangintza Orokorra aurkeztu du udal gobernu taldeak

Agintaldiko lehen aurrekontuak onartu berrikan, hurrengo lau urteetarako egitasmo nagusiak biltzen dituen Plan Orokorra aurkeztu du EH Bilduk.

Lau oinarri ideologikotatik abiatuta osatutako plangintza da: 'Ama lurrekin bat egingo duen jendartea', 'Pertsona lehenetsiko duen jendartea', 'Askatasuna ardatz izango duen jendartea' eta bere **Kultura** sustatuko duen jendartea'. Oinarri horietatik abiatuta, 18 helburu orokor eta 157 ekintza jasotzen dira dokumentuan.

EH Bilduk hauteskondeetara aurkeztutako programa dago plangintzaren oinarrian, baina, horrez gain, 2016ko aurrekon-

tuen prozesuan EAJk eta beste-lako herritarrek eta eragileek egindako ekarpenak ere jaso dituzte. Ildo horretan, azaldu zuen Mikel Biain alkateak, agintaldian zehar bizirik egongo den dokumentua dela, eta arrazoi ezberdinak tarteko izan litezkeen aldeketetara zabalik dagoela.

Plangintzan jasotako egitasmo esanguratsu batzuk ere aipatu zituen alkateak adibide moduan. Hala, aurten bertan etxebizitza hutsen azterketa egingo dutela aurreratu zuen, bilakaera demografikoarekin gurutzatu eta etorkizunean egongo den etxebizitza beharren diagnosis egiteko.

Bestalde, hondakin bilketari dagokionez, 2017an ebaluazio eta

hobekuntza prozeusa burutuko du Udalak, herritarren iritzia jaso eta Oñatirako egokiena den eredia zehazteko.

Enpleguaren arloan, sortzaile eta ekintzaileei zuzendutako topagunea egokituko du Udalak, eta etorkinei begira Herrera Plan integrala inplementatuko du. Kiroldegiko eraberritze proiektua ere landu eta garatu nahi du Udalak agintaldi honetan, herritarrekin adostuta.

Esan bezala, dokumentuak jasotzen dituen 157 ekintzen adibideak baino ez dira. Laister udalaren webgunean (www.oñati.eus) egongo da ikusgai plangintza osoa, eta urteroko ekintza plana zehaztuko duen kronograma.

157
ekintza jasotzen ditu dokumentuak. Laister udalaren webgunean www.oñati.eus egongo da ikusgai

2016-2019 PLANGINTZA OROKORRA (*)

MUGIKORTASUNA

- Peatonalizazioa alde zaharrear: Atzeko kale, Txaketua (2016-2017)
- Herribusa eta auzobusa/auzotaxia (2016)
- Bizikletaren erabileraren inguruko ordenantza (2017)
- Errotazioko aparkalekuen sistema berria (2017)

HIRIGINTZA

- HAPOa (Oñatiko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra). Partehartzeko prozesuaren diseinua (2016) eta garapena (2017-2019).
- Eskolako Bidea programa garatu (2016-2017).
- Auzoetako (Zubillaga, Kasablanka, San Lorentzo, Olakua) eta herriguneko (Unibertsitate ingurua, Etxaluze...) berritze lanak (2016-2019).
- Parkeak eta jolaslekuak berritzea (Olakuako dorre aurrekoa, San Martin auzuneko, San Martin zuhaitzkoa) (2016)
- Etxebizitza hutsen azterketa (2016)
- Alde zaharren biziberritze eta eraberritzeko plana (2017-2019)

LANDA AUZOAK

- Landa bien konponketa eta mantenua (2016-2019)
- Suteen aurkako azpiegiturak (2016-2019)
- Baserrietako eraberritze lanetako materiala (egurrak, harriak) gordetzeko lekua (2017).
- Herriko basoen egoeraren azterketa (2016)

HONDAKINAK

- Egungo sistemaren ebaluazio eta hobekuntza prozesua, Oñatirako egokiena den eredu erabakitzeko, gaikako bilketan atzera pausorik eman gabe (2017)

KUTSADURA

- Kaleko zarata mapa (2017)
- Tabernen ordenantza berri eta indarrean jarri (2016)

SOZIOEKONOMIA

- Sormena eta ekintzailetasuna sustatzeko gune fisikoa egokitu (2017)
- Arantzazuko aterpetxea ireki (2016)
- Moneta sozialaren ebaluazioa eta hurrengo urratsak adostu (2016)
- Adineko pertsonentzako apartamentu tutelatuak (2016-2017)

POLITIKA FEMINISTA

- Emakumeen kontseilua sortu (2016)
- Herriko emakumeen historia berreskuratzeko ikerketa beka (2016/2018)

GARAPEN KOMUNITARIOA

- Eltzia proiektua eta auzotartasuna (Kasablanka...) (2016-2019)

JATORRI ANIZTASUNA

- Etorkinei zuzendutako Harrera Protokolo integrala garatu (2016-2019)

HEZKUNTZA

- Herri Curriculum garatu (2016-2019)

KIROLA

- Kiroldegiaren eraberritze proiektua garatu (2017-2019)
- Larrañako aldagelak, iturria, ingurua asfaltatu (2016)
- Eskola kiroleko eredu berria landu eta abian jarri (2016-2017)

(*) Plangintzak jasotzen dituen egitasmo esanguratsuenetako batzuk

Bidebarrieta kaleko Erabilera Anitzeko Gelak Euskaldun Berria izena izango du aurrerantzean

Heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsonen aitortza egiteko asmoz, herriko kale, plaza, areto edo guneren bati 'Euskaldun Berria' izena jartzea onartu zuen udalbatzak abenduko osoko bilkuran. Hori dela eta, Bidebarrieta kaleko Erabilera Anitzeko Gelak erabilera handia duenez, Euskaldun Berria izenez bataiatzea erabaki du Udalak, izena asko zabaltzen lagunduko duelakoan.



Bidebarrieta kaleko 18an, Euskaltegiaren ondoan dago Euskaldun Berria gela

Gazte lokalen ordenantza behin betiko izaeraz onartu du Udalak

Gazteen aisialdirako lokalak arautzeko ordenantza behin betiko izaeraz onartu zuen udalbatzak urtarrilaren 28ko osoko bilkuran. Orain Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta hortik aurrera urtebeteko epea zabalduko da lokalak legeztatzeko, dagokion jardura baimena eskatuta.

Kiroldegiko gimnasioko aholkulari zerbitzua lehiaketara

Iazko otsailean aholkularitza zerbitzua jarri zuen abian Udalak E-Goitek enpresaren eskutik. Urtebeteko jardunaren balorazioa egin ondoren, zerbitzuarekin jarraitzea eta lizitazioa ateratzea erabaki du udaleko Kirol sailak. Udaleko webgunean (www.oñati.eus) daude ikusgai oinarriak.

Txokolatada solidarioa

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, Txokolatada solidarioa egingo da otsailaren 9an (inauterietako asteartea) Foruen enparantzan (euria egiten badau arkupetan), arratsaldeko 6etatik aurrera. Bertan batutako dirua Haitin eskola bat eraikitzekeko proiekturako izango da.

ERAGINKORRAGOIA ETA MERKEAGOA

Halaxe izango da kale-garbitzua zerbitzua Udalak zuzenean kudeatuta, gobernu taldearen ustez



1998az geroztik kale-garbitzua zerbitzua ematen duen FCC enpresarekin kontratua amaitu (2018ra artekoa zen) eta irailaren 1etik aurrera zerbitzua zuzenean kudeatzea erabaki du udal gobernu taldeak. FCCk kontratuan egindako ez-betetze jarraituak daude erabaki honen atzean: zaharkitutako makineria ez berritzea, bajaran dauden langileak ez ordezkatzeta, 2008an jada amortizatuta zegoen makineria 2011n Udalarari fakturazten jarraitzea...

Kale garbitzua zerbitzua Udalak zuzenean kudeatu eta kontrolatzeak onurak ekarriko dituela uste du gobernu taldeak; alde batetik eraginkorragoa izango da eta, gainera, ekonomikoki jasangarriagoa edo merkeagoa, zerbitzuaren BEZa eta enpresaren mozkinak saihesten direlako, azaldu zuen Mikel Biain alkateak, erabaki honen inguruko azalpenak emateko bilera irekian.

Gaur egun Udalak FCCrekin daukan kontratuaren arabera, kale-garbitzua zerbitzuak 520.681 euroko kostua du Udalarentzat, urteko. Egungo langile eta tresneria baldintza berberak mantenduta (zazpi langile lanjardun osoz eta hiru %33eko jardunarekin, eta erratz-makina bat) Udalak %15eko aurrezpena izango luke zerbitzua zuzenean kudeatuta. Hamar lanpostuak jardun osokoak izanda ere, artean %3,6ko aurrezpena izango luke Udalak.

Bestalde, udaleko Zerbitzu sailak egindako azterlanaren arabera, kale-garbitzua zerbitzu optimoa eman ahal izateko beharrezko baliabideak hauek dira: 10 langile lanjardun osoan, 2 peoi errefortzu moduan lau hilabetez, eta 2 erratz-makina. Baldintza horietan zerbitzuaren kostua gaur egungoa baino %7 garestiagoa litzateke, baina nabarmen hobetuko litzateke kualitatiboki.



UDAL GOBERNU TALDEA

“Gaurko langile eta tresneria baldintzak mantenduta, Udalak %15eko aurrezpena izango luke zerbitzua zuzenean kudeatuta”

Egungo kale garbitzaileen etorkizuna aidean

Gaur egun FCCrentzat lan egiten duten kale garbitzaileek beraien kezka eta ezinegona adierazi dute, Udalak zerbitzua bereganatu eta lanpostuak lan eskaintza publiko bidez betetzeko hartutako erabakiaren aurrean. Lanpostuak galduko dituzten beldur dira. Kale garbitzaile lanetan urteak daramatzatela azaldu dute (batzuk 15, 17 edo 23 urte), eta esperientzia duten arren, oposizioko lehiaketa publiko bat gaintzea zaila ikusten dute, oinarritzko ikasketak ere ez dituztelako zenbait kasutan. Beraz, egun zerbitzuan dauden langileen eta lan baldintzen subrogazioa eskatu du ELA sindikatuak, langileen izenean.

Ildo horretan, udal gobernu taldeak adierazi du administrazio publikoak konkurrentzia edo lehia eskubidea bermatu behar duela, sortuko diren lanpostu publikoetara aurkezteko edozein herritarrek duen eskubidea errespetatuz. Hala ere, Udalak garbi utzi nahi izan du ez daukala arazorik gaur egun zerbitzua ematen duten langileekin, eta beraien egoera berezia kontuan hartuz, deialdi publikoan malgutasunez jokatzeko prest daudela, legeak ahalbidetzen duen neurrian. Joan den astean elkartu ziren alde biak eta, oraingoz, jarrerak nahiko aldentuta daudela adierazi digu ELAko ordezkariak. Edozein modutan, aste honetan bertan berriro biltzekoak ziren.

LAB sindikatuak bere aldetik komunikatu bat plazaratu du, kale-garbitzua zerbitzua publikizatzearen aldeko jarrera azalduz. Hala ere, FCCko langileen egoera eta etorkizunarekiko bere kezka azaldu du, eta ahalegin berezia eskatu dio Udalarri, FCCko langileak prozesu honetatik kanpo gera ez daitezela.

ESKOLAKO BIDEA argazki lehiaketa eta erakusketa

Martxan da bigarren urtez Eskolako Bidea proiektua, mugikortasun jasangarria sustatzea helburu duen proiektu hezitzailea. Proiektu honetan Oñatiko udalaren Hezkuntza sailak eta herriko ikastetxeek hartzen dute parte, Urgainek, Txantxiku Ikastolak eta Elkar Hezi ikastetxeak.

Eskolako Bidea herritarren partaidetza oinarri duen ekimena da. Ekimen honen bidez, herri ereduaz hausnartu nahi dugu, umeek eguneroko joan-etorrietan izaten duten autonomia maila eta jasagarritasuna ardatz hartuta. Proiektua ez da umeengana soilik zuzentzen, baina eurek espazio publikoa, bide-segurtasuna eta hirigintza nola bizi dituzten jakitea oso garrantzitsua da. Izan ere, txikien bizipenak gizarte guztiarentzat onuragarri izan daitezke, herrian hobekuntzak eta eraldaketak proposatzeko garaian.

Argazki lehiaketa 7 urtetik 14 urtera bitarteko haur eta nerabeei dago zuzenduta (LH1-DBH2), gai honen inguruan: "Eskolako bidean zer gustatzen zait? Zer ez?".



Hauek dira helburu nagusiak:

-Haur eta gaztetxoek ikuspegia ezautzea, eskolako bidean gustatzen zaizkien eta gustatzen ez zaizkien leku edo egoerak zeintzuk diren jakitea.

-Espazio publikoaren balorazio bat izatea, helduek jakin dezagun zeintzuk diren umeentzat kalitatezko espazioak eta zeintzuk ez, hauek hobetze aldera.

-Helduen jokabide batzuk azalartzea (umeentzat eta gazteentzat atseginak edo desatseginak direnak) eta jokabide horien gainean hausnarketa eragitea.

Parte hartu nahi duten ume eta gaztetxoek ateratako argazkiei (gehienez 2) izenburua jarri, eta oinatieskolabidea@gmail.com helbidera bidali beharko dituzte, beraien izen-abizenak, adina eta kontakturako telefono zenbaki batekin batera.

Argazkiak aurkezteko azken eguna **martxoaren 4a** izango da, eta jasotako argazki guztiak Kultur Etxeko erakusketa

gelan izango dira erakusgai martxoaren 14tik 18ra.

Lehiaketako epaimahaiak bi sari emango ditu, LH1-LH4 adin tarteko artean bat, eta LH5-DBH2koen artean bigarrena.



Summer camps

Udalekuak

Udaleku irekiak

Colonias

Colonias abiartas

Ordutegia: goizez 9:00etatik 13:00etara

Iraupena: 2 - 4 aste

Data: ekainaren 27tik uztailaren 22ra
Irailaren 1etik 8ra

Jarduerak: eskulaburpenak, kirolak, festak eta jokoak.






OÑATI
Motxon, 7. Tel: - 943 71 60 00
oinatieskolabidea@gmail.com

mondragonLingua

> Informazioa eskatu

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Ander Izagirre

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Kale garbiketa zerbitzuaren inguruan

Joseba Beñat Elortondo (LAB sindikatua)

2015ko abenduaren 17an, Oñatiko udalak onartu zuen osoko bilkuran 2016ko urriaren lehenetik aurrera, udalak bere gain hartuko du kale garbiketa zerbitzua.

Udal gobernua FCC-rekin zuen kontratua hausti zuen, enpresa honek kontratua jasotakoa ez zuela betetzen argudiatuta:

1. Lan tresnak hondatzen direnean ez dituelako berehalakoa konpontzen.

2. Bajak, jai-egunak edo oporrak ez direlako ondo kubritu izan; egun askotan 4 edo 5 langile egon direlako soilik lanean, kontratuak 7 langilek egon behar dutela dioenean.

3. Lan antolakuntza penagarria delako.

LAB sindikatuak beti defendatu izan du udalak zuzenean kudeatu beharko lukeela zerbitzua.

Gaur egun, FCCn 10 langile daude Oñatin lanean. Asteaz zehar 7 langilek egiten dute lan egun osoko kontratuarekin. Astebukaerarako dauden 3 langileak ordea oso baldintza prekarioetan daude lanean:

- 1. Asteaz 14 ordu egiten dute lan.
- 2. Euren nomina hobetzeko, aste

barruan zehar ematen diren “bajak” eta oporrak kubritzen dituzte eta, gainera, egun hauek kobratzeko arazoak edukitzen dituzte.

3. Lan karga astunegia dute.

FCCn bi langile mota daude: batzuk egun osoko lanaz eta soldataz, eta beste batzuk lanaldi partzialekin, lan baldintza prekarioetan. Hauexek da pribatizazioaren ondorioetako bat.

Udalak dio 10 lanpostu publiko aterako dituela eta denak jardun osoan. Honek gaur egungo lan baldintzak hobetu beharko lituzke orokorrean eta zerbitzua bera ere hobetuztea suposatuko beharko luke.

Gure kezka nagusietako bat FCCko langileak nola geratuko diren da. Argi dago udalak ezin dituela plantilan zuzenean sartu. Legez ezinezkoa izateaz gain, zuzena ere ez litzateke elako izango lanpostu publikoetara oposaketarik gabe sartzea. Hala ere, gure ustez udalak ahalegin berezia egin beharko luke, FCCko langileak prozesu honetatik kanpo ez geratzeko. Hau da, gure iritziz, udalak kontutan izan beharko lituzte langile hauek guztiek kale garbiketan egin dituzten urte guztiak.

LAB sindikatuak zerbitzu hau eta pribatizatuta dauden beste denak berriz udal eskuetara bueltatzearan alde borrokatuko du.

Rikardo Txintxurreta Nazabal

Jerardo Elortza

Memorixa oneko gizona zan Rikardo Goixenetxe. Pasadizuak eta pertsonen arpegixak ondo gogoraketan dittuein horreittakua. Laguntzaille eta informaitzaille bikaiña eta segurua suertau xakun argazki zaharrrak aldizkari honetan aztertu eta publikaitterako orduan.

Goguan dakot, batez be, pare bat: 1930. urte inguruan Oñatiko herri-eskolako 150 mutiko eta euren maixu agustiñuen fotografixia dakarrena; eta 1937ko otsaillian, gerra-denporan, Ubiden, Bizkaia eta Araba arteko mugan, U.H.P. batailloko 53 miliziano oñatiar agerketan doskuna. Bixak 2003an kaleratu gittuan. Horretarako eskiñi euskun argibidiak ezinbestekuak izan ziran. Milla esker, Rikardo!

Burmuinak eta zaborteziak

Gerardo Markuleta

Oñatitik kanpo bizi naiz, baina tarteka etortzen naiz, noizbait familiarena izan zen eta orain amaren bizileku den etxera.

Oraindik ez zait gogotik joan zer-nolako tristura sentitu nuen auzoko balkoiak zabor-poltsaz beterik ikusi nituen lehen aldian; ezta zintzilikariook apurka-apurka desagertuz zihoazela ikusitakoan sentitutako poza ere.

Duela hilabete batzuk, antzeko tristura –baina amorru pittin batekin nahastuta– sentitu nuen amaren etxe pareko horman pintada bat ikusi nuenean, erdera batu-batuan: “Tu vida es un vertedero”.

Ez dakit pintadak –eta, egia esanda, bost axola– zaborren inguruko liskarrarekin zerikusirik daukan edo ez, baina inork ez du merezi goizero sukaldeko pertsiana jaso, eta hortxe une oro, halako mezu pozoitsua begien aurrean izatea.

Horregatik, pintadaren egileari eskatu nahi diot margo-pote bat (grisa du hormak kolorea) eta brotxa bat hartuta, etor dadila berriro ere auzora, pinturaz egindako kaka hori pinturaz estaltzera.

Hala egiten ez badu, pentsatu beharko dut zabortezia, egon, bere burmuinean dagoela.

Ohar eta deialdiak

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO ALDARRIKAPEN ETA BORROKA EGUNA

Martxoak 8aren inguruan, gonbidapena luzatu nahi diegu Oñatiko emakume guztiei, antolatuta daudenei zein bakarkakoei, kirolariei, artisauei, baserritarrei, etxeoandreei, alargunei, jubilatuei eta egun horren inguruan zerbait itteko gogua dutenei, gurekin batera egitaraua osatzeko.

Idea guztiak ongi etorriak izango dira. Horretarako bi bide daude: gure emailera (andraitzfeministak@hotmail.com) mezua bidaltzea, edo bestela, **otsailaren 16an** (18:30tan) Andraitzeko lokalean (San Juan, 5-behea) egingo den bilerara zuen ekarpenak jasotzea. Aurrez eskerrak emunez, Andraitz emakume taldea.



PRESOEN ALDEKO ZOZKETAN SARITUA

Herriko preso-en alde Gabonetan antolatutako zozketan 3002 zenbakia (ordezkoa 1318) atera zen saritua. Oier Fernandezek zeukan zenbaki saritua, eta berak jaso zuen oparia, gabonetako saski zoragarria, ondoko argazkian ikusten den moduan.



HILEKO IRUDIA

Argazkia: Iñigo Gabiria



Oñatiko herriaren ikuspegi berezia. Parapentetik ateratako argazkia.

COP 21. PARISEKO GAILURRA: BESTE KIOTO BAT OTE?

Pasa den abenduan, munduko 195 herrialdek adostu zuten Parisen beroketa globalari aurre egiteko egitasmo bat, mendearen bukaerarako planetaren bataz besteko tenperaturaren igotzea 1,5-2 gradutan mantentzea helburua duelarik. Horretarako, negutegi efektua sortzen duten isurketei mugak jartzea eta horretarako finantzazio sistema indarrean jartzea ere onartu zen.

Gaur egun, Txina (% 24,5), EEBBk (%14,4) eta Europar Batasuna (%10,2) dira isurketa horien ia erdiaren erantzule, eta beste zazpi herrialdeekin batera, %75era heltzen dira. EEBB ez zuten Kiotoko Protokoloa (1997) sinatu eta Txinak ez zuten betetzeko barne konpromisorik onartu, eta horrek asko murriztu zuen eraginkortasuna. Oraingoan biak sinatu dute, baina berriro ere akordioak ez dira lotesleak. Sinatzaileek, beraien herrialderako plana aur-



Luis Guridi

keztu behar dute derrigorrez, baina helburuak norberak jartzen ditu eta gainera ez daude legez behartuta esaten dutena betetzera. Eta aurrekariei erreparatzen badiegu, beteko ote den ala ez susmatzeko motiboak egon badaude.

EEBBren kasuan, betidanik aipatu dute Intergovernmental Panel on Climate Change (IPCC) erakunde ospetsuaren ikerketak ez dutela "frogatzen" aldaketa klimatikoa gizakion eraginaren ondorioa denik, eta bere gomendioak baztertuz, esaten dute ez dutela "hiritarren ongizatea" kolokan jarriko duen ezer onartuko. Ikuspuntu hau oso errotura dago gizartean eta bereziki errepublikarren artean.

Txina berriz, azken 30 urte hauetan, ekonomia planifikatutik merkatu ekonomiarra (kapitalismora) bide azkarra egiten ari da, munduko bigarren ekonomia izatera heldu arte. Etengabeko hazkunde

prozesu horrek aldaketa sakonak eragin ditu mundu guztian –enpleguan, merkataritzan, inbertsioetan, finantza sisteman, etab-, baina baita ere planetaren epe luze-ko jasangarritasunean. Duela 40 urte, beheko estankuko eskaparatian zegoen Napoleonek famatua egin zuen aforismo ezaguna izenburutzat zuen Alain Peyrefitte idatzitako liburuak esaten zuena gertatu da: Cuando China despierte...el mundo temblará. Beraien argudioa da, ezin dutela industrializazio prozesua geldiarazi, Europa eta EEBBk direla gaurko egoeraren erantzule, iraultza industrialaren ondorioa delako.

Agian arrazoia dute, baina aldaketa klimatikoa XXI. mendeko arazo eta mehatxu handienetarikoa izango da, handiena ez bada, eta serio hartu beharra dago. Etengabeko hazkundetik jasangarritasunera abiatu behar da gizartea, eta bereziki herrialde industrializatuak, eta horrek eskatzen du, besteak beste, eredu energetikoa errotik aldatzea, erregai fosiletik deskarbonizaziora eta berriztagarrietara pasatzea, eta arin.



SUFRAGISTAK

Britainia Handiko emakumeak 1832ko abuztuan hasi ziren antolatzen ekimen demokratikoak eta protesta baketsuak boto-eskubidearen alde. Beranduago, emakume ekintzaile talde bat eratuaz joan zen XX. mendearen hasieran (Women's Social and Political Union, 1903), eta indartu egin zen aldarrikapena. Emakume horien bide malkartsua kontatzen da Sufragistak filmean.

Garai horretan, Europako hiruzpalau herrialdetan baino ezin zuten emakumeek botoa eman: Norvegiar (1913tik), Danimarkan (1915etik) eta Alemanian (1918tik). Estatu Batuetan, 1920an lortu zuten. Britainia Handiko emakumeek 1918an boz-



Amaia Erostarbe
EAJko zinegotzia

katu zuten lehen aldiz (ezkonduek, unibertsitateko ikasleek eta 30 urtetik gorakoek), baina 1928ra arte ez zen ezarri emakume guztien sufragioa. Espainiako estatuan, Bigarren Errepublikaren hasieran ez zegoen emakumeen sufragiorik, eta Clara Campoamor Gorte Konstituziogileetako diputatuaren lanari esker onartu zen 1931ko irailaren 1ean.

Euskadin, 1933. urteko azaroaren 5ean eman zuten lehen aldiz botoa emakumeek, Euskal Estatutua bozkatu zenean. Gomutan ditugu "Emakumearen botoa: 75 urtez historian" (Emakunde, 2006) lanean jaso ziren Uribarri auzoko Otadui Txiki baserriko Rosario Kortabarriaren hitzak

(1908-2014): "Akordatzen naiz joan gine-la. Denbora txarra zegoen, euria zen eta kotxez eraman gintuzten. Garai hartan kotxe asko ere ez zegoen baina autoak baziren bai, kaminotan. (...) Gu pozik joan ginen. (...) Hiruzpalau lagun joan ginen batera. Antonia, Joxepa... Batzokian, behintzat, batera egon ginen. Boto eman eta joan ginen Batzokira, (...)”

Sufragistak filmean, feminismoarekin lotutako estereotipoak desegiten dira, eta feminismoaren helburua adierazten da: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa izatea. Alabaina, dezentte urte beranduago, 2016ko urtarrilean, badago bestelako adibiderik: Angulemako Nazioarteko Komiki Jaialdia (Frantzia); 43.edizioko sari nagusiaren 30 hautagaiak gizonetakoak dira. Ezin dugu ahaztu berdintasunik eza gizarte osoaren arazoa dela eta denon artean egin behar diogula aurre. n eta baita gure etorkizuna irabazten ere!

>> HAUR ETA GAZTEAK

GURE EKINTZEN BERRI EMANGO DUEN ATALA...



Oñatin herri curriculuma eta ondare lantzeko burutzen ari garen ginkana da Arazerixan! Oñatiko Udalak eta Gaztelekuak txantxiku gazteentzat (DBHkoak) propio prestatu duguna, ginkana txantxikuerara! Herriko kontuak, bitxikeriak, txokoak, txantxikuen historia, berbak eta kultura modurik dibertigarrienean, arazerixan ibiliz, ikasteko ginkana da.

Otsailtik martxora bitartean, astero internet bidezko proba bat aurkeztuko da Gaztelekuan, guztira bost. Eta proba denak egiten dituztenentzat, zein puntuazio gehien batzen duen taldearentzat sariak egongo dira. Proben ardatza, nola ez, Oñatiko kultura, ohiturak, historia, berbak eta toponimia, besteak beste, izango dira.

Arazerixan ibilltia, Oñatin, bazterrak endredetan ibilltia da, deabrukerixan, sorginkerixan jardutia. Horregatik deitzen da Arazerixan! gertatu dugun ginkana, baina ez hori bakarrik, zeren eta hori izango da hemendik aurrera Kontzejupetik barruan, Oñatiko haur, nerabe eta gaztetxoekin lana egiten dugunok gure berriak zabaltzeko izango dugun tartetxoaren izena; Arazerixan!

Tarte honetan Ludotekatik, Udalekuetatik edo Gaztelekuetik sortzen dugunez gain, haur eta gazteen interesekoak

izan daitezkeen guztiak lantzen ahaleginduko gara... arazerixan, endredetan, sorginkerixan,... arituko gara.

Haur, nerabe eta gazteei begira lantalde zabala ari gara lanean, aberatsa da Oñati zentzu horretan, eta ugariak dira ere antolatutako zerbitzuak eta eskaintzak. Haurrei zuzenduta adibidez, Ludoteka, Sotoa, Kuboa, Udaleku irekiak edota Bertakotze progama daude. Horretaz gain, Txantxiki guraso elkartearekin, edo laktantzia taldea ere sustatzen ahalegintzen gara.

Nerabeei zuzenduta topalekua, informazio puntua, informatika gela, bertakotze, kale hezitzaileak, sexologia zerbitzua, ...

Gazteekin berriz gazte-ekintza plana lantzen ari gara, gazte lokalen prozesua

bideratu berri da, emantzipazio diru-laguntzak bideratzen ari gara, Gaztelekuan gazteei zuzendutako eskaintza kulturala, gazte taldeek diskoak grabatu ahal izateko sormen diru-laguntzak, herrian begirale titulua atera ahal izateko aukera, eta abar.

Gauza pila ari gara bideratzen, Oñatin ez gaude keatzeko moduan, eta tarte honetan ikusiko gara hileroko guzti honetaz jarduteko; gure haur, nerabe eta gazteen intereseko gauzen inguruan... arazerixan!



XX. INGURUMEN JARDUNALDIAK

OÑATIKO NATUR ESKOLAK ANTOLATUTA

OTSAILAK 22 - MARTXOAK 6



Oñatiko anfibioen inguruko hitzaldia, erakusketa eta irteera didaktikoa



Parisko Klima Aldaketaren Goi Bikeraren nondik norakoei buruzko mahai ingura



Oilagorren migrazioak. Satellite bidez egin zaien jarraipenaren emaitza.

Eta beste gai asko naturaz gozatu eta ikasteko. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

EGITARUA

• OTSAILAK 22-MARTXOAK 6:

ERAKUSKETA "Txantxikuak, lupuak, ugaatuak... anfibioen sekretuak" Egunero 6etatik 8etara Kultur Etxean.

• OTSAILAK 23, ASTEARTEA

HITZALDIA "La migración de las becasas: ¿qué nos dicen los satélites?" Juan Arizaga (biologian doktorea, Aranzadiko ikerlaria). 7etan Kultur Etxean

• OTSAILAK 24, ASTEAZKENA

HITZALDIA "Auroras boreales" Javier Marañón (Arabako Astronomia Elkarteko lehendakaria). 7etan Kultur Etxean

• OTSAILAK 25, OSTEGUNA

ZINE KLUBA "RAMS, el valle de los carneros" (Islandia, 2015) Grímur Hákonarson. 8etan Kultur Etxean

• OTSAILAK 26, OSTIRALA

HITZALDIA "Oñatiko herpetofauna I: anfibioak eta hauen egoera" Jon Garin (biologoa, Aranzadiko herpetologoa). 7etan Kultur Etxean

• OTSAILAK 27, LARUNBATA

IKASTARO-IRTEERA "Oñatiko herpetofauna I: anfibioen identifikazioa" Jon Garin. Goizeko 9etan Natur Eskolan

• OTSAILAK 28, IGANDEA

ZUHAITZ EGUNA. Goizeko 10etan herriko plazan.



Aurora borealei buruzko hitzaldia



Azaleramendu geologikoen garrantzia aztergai



Añanako Gatzagako diapiro aberatsa aztertzeko irteera

**-ZUHAITZ EGUNA
-ZUHAITZ FERIA
-ZINE KLUB
EMANALDIAK...**



• MARTXOAK 1, ASTEARTEA

HITZALDIA "Azaleramendu geologikoen garrantzia; E.H.ko aniztasuna" Asier Hilario (geologian doktorea, Euskal Kostaleko Geoparkearen zuzendari zientifikoa). 7etan Kultur Etxean

• MARTXOAK 2, ASTEAZKENA

MAHAI INGURUA "COP 21. Parisko Klima Aldaketaren Goi Bileraren nondik norakoak" Moderatzailea: Iñaki Antigüedad (geologian katedraduna, EHUko irakaslea). 7etan Kultur Etxean

• MARTXOAK 3, OSTEGUNA

ZINE KLUBA "Corn island" (Georgia, 2014) George Ovashvili. 8etan Kultur Etxean

• MARTXOAK 5, LARUNBATA

ZUHAITZ FERIXIA. Herriko plazan goizeko 9etan

• MARTXOAK 6, IGANDEA

Egun osoko IRTEERA "Añanako Gatzaga, diapiro aberatsa". Goizeko 8etan korreoseko autobus geltokian. Izen ematea 943716404 telefonoan.

• MARTXOAK 20, IGANDEA

ZUHAITZ EGUNA ALOÑAKO LAGUNEKIN. Goizeko 9:30ean Unaimendin.

• UDABERRIAN:

"OÑATIKO HERPETOFAUNA II: NARRASTIAK" Hitzaldia eta irteera. Eguna zehazteke, ADI UDABERRIKO DEIALDIARI!



Bost oñatiar Gipuzkoako Eskolarteko Bat-Bateko Bertsolari Txapelketan

Arg.: Mirari Sagarzazu

Urtero bezala, aurten ere Eskolarteko Bertsolari Txapelketa jokatu da (15-18 urte arteko bertsolarientzat), Ikastolen Elkarteak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak antolatuta. Aurtengoa 36.a da eta Oñatiko Bertso Eskolako bost kidek parte hartuko dute: Urko Arregi, Aritz Irigoien, Aitor Tatiegi, Gontzal Belategi eta Bittor Zubiagirre. Kanporaketa saioak bertso afari formatuan jokatu dira, afalsotean. Otsailaren 12an Gontzal eta Bittor ariko dira Legazpin; martxoaren 11n Aritzek eta Aitorrek abestuko dute Aretxabaletan, eta martxoaren 17an Urkok Azkoitian. Finala apirilaren 17an izango da, Eibarko Coliseoan, Bertso-Eskolen Egunaren baitan. Txapelketara begira dituzten asmoen berri eman digute, eta bertso bana ere eskatu diegu.

URKO ARREGI (17 urte)

Bosgarren urtea du bertso eskolan eta hirugarren aldiz doa eskolartekora. Saio txukuna egitea du helburu, eta hortik aurrera ikusi egin behar.

*Lehen aldia Mutrikun izan zen
Zumarragan bigarrena.
ta aurten ere pozik eman dut
eskolartekoan izena
esaten dute hirugarrenez
lortu ohi dela nahi dena
ta ea aurten lortu ahal dudan
aurrez lortu ez nuena*

ARITZ IRIGOIEN (16 urte)

Aurtengoarekin zazpi urte egingo ditu Bertso eskolan, eta hauxe izango da bere aurreneko txapelketa. Lagunek animatuta eman du izena eta, batez ere, ikastea eta disfrutatzea da helburua.

*Eskolarteko txapelketara
joateko hainbat aukera*

*igaz ez nuen parte hartu nahi
ta aurtengoan aurrera
beti izaten da lehen aldi bat
eta bertan saiatzera
gertatzen dena gertatzen dela
noa ondo pasatzera*

AITOR TATIEGI (15 urte)

Lau urte daramatza bertso eskolan eta lehen aldiz ere lehen aldia izango da lehiaketan. Bere burua txapelketako mailarekin alderatu nahi du. Ahalik eta ondoen kantatzea eta ahal dan ondoen kantatzea da helburua.

*Bertso eskolara in ditudanez
aurtengoan buelta pila
nere ustetan jada naizenez
hontako nahiko abila
aurten txapelketara nijoia
esperientzia bila
aurrez asko prestatu dugula
orain igarri dadila*

GONTZAL BELATEGI (16 urte)

Zazpi urte inguru darama bertso eskolan eta bere hirugarren aldia da eskolartekoan. Txapelketa motibazio puntu garrantzitsua dela dio, urte erdi horri begira ematen dutelako, eta orduan egiten dutelako hobekuntzarik nabarmenena. Finala urruti gertatzen zaiola dio eta, beraz, ondo pasatzea izango du helburu.

*Oñatiarrek ze itten daue
Gipuzkuatik barrena?
bertsotan erakustia nahi du
herri hontako onena
ta sailkapena neretzat behintzat
ezta izango problema
juerga girua da txapelketan
dauen importantiena*

BITTOR ZUBIAGIRRE (14 urte)

Laugarren urtea du bertso eskolan eta lehenengoz aurkeztuko da txapelketara. Bapatean aurreneko kantatzeaz gain, ondo pasatzea eta esperientzia hartzea da helburua.

*Apuntatzeko izan dudala
nahikoa lan ta endredo
baña apuntau ostean orain
entrenatzen gaude ero
lehen aldi bat beti dago ta
nirea aurtengoa edo
itxura eman ez saio on bat
egitea dut espero*



LENAO

Ander Etxaniz (baxua, kitarra eta ahotsa), Iker Martinez de Zuazo (kitarra eta ahotsa), Egoitz Olalde (bateria) eta Joxeba Aranburu (kitarra eta ahotsa).

Rock melodikoaren aldeko apustua egin du Lenaok bere lehen diskoan

Rock lasaia, melodikoa; rock amerikarra bezala ere ezagutzen den musikaren aldeko apustua egin du Lenaok taldeak bere aurreneko diskoan.

Iker Martinez de Zuazo (*Latzen, Potemkin, Amonal...*) Egoitz Olalde (*Sharon Stoner, Sorkun...*) Joxeba Aranburu (*Bitz...*) eta Ander Etxanizek (*Gas...*) osatzen dute taldea. Ibilbide, esperientzia eta maila handiko musikariak inondik ere.

Orain dela hiru urte eratu zen taldea, eta denbora honetan 'sukaldeko' lanean aritu dira,

abesti ugari konposatuz, soinu propioaren bila. Orain arteko taldeetan rock gogorragoa (*heavy, punk, stoner...*) jorratu izan dute, baina proiektu berri honetan esparru ezberdin bat esploratu nahi izan dute, eta beste garai bateko rock soinu naturala bilatu dute (hortik Lenaok izena), pop erako doinuentzat ere lekua utziz, *The Band, Neil Young, Wilco* bezalako taldeen ildotik

TALDE IZAERA

Talde-lanaren emaitza da Lenaoren lehen diskoa. Taldekide



Boga eta Aker

tabernetan dago salgai diskoa 10 eurotan. Disko dendetan eta Elkar-en internetako dendan ere eskura daiteke. Azaleko irudia eta barruko liburuskan aurkituko ditugunak Ander Etxaniz taldekidearenak dira.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala
- Lurren kristalizaturia, dekapaturia eta argizari ematea.

Oiakua 17 beheak, esk. / Tel: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

'Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu'.

guztiak konposatzen dute, eta guztien artean mamitutako lana da.

Grabazioa ere bereziki zaindu nahi izan dute, talde izaera hori indartzeko asmoz. Andoaingo Garate estudioan grabatu zuten iazko udan, Kike Arkarazoren (*Negu Gorriak, M-ak, Nacion Reixa...*) gidaritzapean. Instrumentu guztiak batera grabatu zituzten (ahotsa izan ezik) eta modu analogikoan. “Soinu naturala nahi genuen. Diskoa entzutean, jendeak talde bat jotzen ikustea nahi genuen, eta oso gustura gaude emaitzarekin” azaldu digute.

Hogeita hamabost bat abesti konposatu dituzte, eta horietatik hamaika aurkituko ditugu lehen diskoan, Lenaok proposatzen duen musika motaren erakusle. Taldearen beste berezitasunetako bat da, ez daukala ahots erreferente edo garbi bat, eta taldekide guztiak abesten dutela.

MUSIKAREN INDARRA

Testuei dagokienez, anbiguotasunez jokatzeko du Lenaok, interpretazio ezberdinetarako atea zabalik utziz. “Guk giroa jartzen diegu abestiei, baina esanahi zehatza eman barik, nahiago dugu entzule bakoitzak bere sentimenduak jartzea”.

Aitortzen dute musikariak direla batez ere, idazle baino gehiago, eta taldearen indarra musikan dagoela bereziki, baina ahalegin berezia egin dutela testuak ere zaintzeko.

Azalean ere anbiguotasun horrekin jokatu nahi izan dute, Ander Etxaniz taldekidearen margolan abstraktu batekin. Disko barruan aurkituko dugun liburuskan ere, Etxanizen hainbat irudi aurkituko ditugu, abestiei koloreak jartzeko ahaleginean.

Otsailaren 1az geroztik diskoa salgai dago (10€). Aker eta Boga tabernetan eskura daiteke, eta ohiko disko dendetan. Diskoa kaleratzearekin batera, aurkezpen bira bat egingo dute (ikus egitaraua). Oñatin martxoaren 12an joko dute, Gaztelekuan.

LENAOREN AURKEZPEN BIRA

- Otsailak 12
IRUÑEA (Infernu taberna)
 - Martxoak 12
OÑATI (Gaztelekua)
 - Apirilak 8
TOLOSA (Bonberena)
 - Maiatzak 7
BILBO
(Deustuko gazte lokala)
 - Ekainak 4
LEGAZPI (Gaztetxea)
- Aurkezpen biran **Zingira** talde oñatiarra izango dute lagun



Argazkiak: Mikel Agirre

MOTZEAN

HITZALDIA / OTSAILAK 12

‘Mexikoko herri indigenen errealitatea’

Iazko uda partean Txiapasen brigadista gisa egon zen Ane Zendegei oñatiarrak hango herri indigenen errealitateari buruzko hitzaldia emango du otsailaren 12an Antixena gaztetxean 18:30etan.



IPIIN KONTAKETA / OTSAILAK 25

Izaskun Mujika ipuin kontalaria 3-5 urteko haurrentzat

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan Izaskun Mujikak 3 eta 5 urte arteko haurrei zuzendutako saioa eskainiko du otsailaren 23an. Hilaren 15ean hasiko dira gonbidapenak banatzen haurren liburutegian.



Otsailaren 15ean hasiko dira gonbidapenak banatzen

Tertulixan-Irakurketa taldeak

Udal liburutegiko gaztelerazko Tertulixan taldea otsailaren 10ean bilduko da (18:30) ‘Ante el dolor de los demás’ (Susan Sontag) liburuz hitz egiteko, Ruben Ariasek dinamizatuta. Euskarazko taldeak berriz, otsailaren 17an (18:30) egingo du hurrengo tertulixan saioa, ‘Katilinarenak’ (Amélie Nothomb) liburuarin inguruan, Danele Sarriugartek dinamizatua



Susan Sontag



ANDOAINGO XI. PIANO JAIALDIAN

parte hartuko dute Jose de Azpiazu Musika Eskolako 11 ikaslek otsailaren 20-21ean. Argazkian daude batzuk Ainhoa Galdos irakaslearekin



(Arg.: OK Magazine)

Boxeoa, ariketa fisiko osoa

Ixa Rodriguez Espainiako txapeldunak boxeoa ikastaroa emango du Indar gimnasioan otsailetik aurrera

Kontzeju | 28 | petic

(Arg.: OK Magazine)



Ixa Rodriguez (kamiseta urdinez) Soraluzeko boxeolariak, emango du ikastaroa

Kirola egin, kaloriak erre eta gorputza tonifikatzeko aukera berria izango dugu otsailetik aurrera Indar gimnasioan, Lopabox elkartearen eskutik. Iosu Lopetegi boxeoa-entrenatzaileak zuzentzen duen elkarte da Lopabox; Euskadiko hainbat herritan (Bilbo, Arrigorriaga, Osintu, Soraluze...) ditu boxeoa taldeak, eta orain Oñatira iritsiko da. “Ezagutzen dut Iosu Lopetegi eta oso profesionala iruditzen zait. Oso lan ona egiten ari da boxeoa daukan irudi txarra aldatzeko” azaldu digu Juanjo Berasaluzek, Indar gimnasioaren arduradunak.

ARIKETA FISIKOA HELBURU

Jarduera fisikoa egitea izango da boxeoa ikastaroaren helburu nagusia, Juanjok azaldu digunez. “Kirol oso konpletoa da boxeoa; hankak, abdominalak, bizkarra... gorputz atal guztiak lantzen dira. Lan aerobikoa eta muskularra egiten da. Aktibitate edo entrenamendu oso egokia da pisua kentze-

JUANJO BERASALUZE / Indar Gimnasioa



“Ariketa Fisikoa egitea da helburu nagusia, oso kirol konpletoa baita boxeoa, baina boxeoa teknikan sakontzeko aukera ere izango du nahi duenak. Defentsa pertsonalaren ikuspuntutik ere interesgarria izan daiteke”.

ko eta gorputza tonifikatzeko. Gainera, boxeo ikastarora datozenek gimnasioan muskulazioa egiteko aukera izango dute”.

Helburua, hasieran behintzat, ez da boxeolariak ateratzea izango, baina boxeoaren teknikan sakondu nahi duenak ere izango du aukera. “Lopabox elkarreak boxeoaren promozionatzen du eta boxeo-jaialdiak antolatzen ditu; beraz, norbait bide horretan sakondu nahi badu, aukera guztiak izango ditu. Baina hasiera batean oinarritzko mailako ikastaroa izango da eta, batez ere, oinarri fisikoa izango du. Teknika aurreratxoago etorriko da. Azken batean, izena ematen dutenen ezaugarri eta beharretara egokituko da”.

ESPAINIAKO TXAPELDUNA

Irakaslea ere ez da edonor izango, Euli-pisutan (-48 kilo) Espainiako txapelketa den Ixa Rodriguez soraluzetarrak emango baitu ikastaroa. Duela bi urte El Conquis saioan parte hartu ondoren egin zen oso ezaguna, baina boxeo munduan ere izen propioa duen emakumea da, energia handikoa eta oso profesionala. Irakaslea emakumezkoa izatea ere balio erantsia da, defentsa per-tsonalaren ikuspuntutik ere har daitekeelako aktibitate hau.

Urtarrilaren 16an saio praktikoa eskaini zuen Ixak Indar gimnasioan, eta bertan parte hartu zutenak (ezkerreko argazkia) oso gustora ateraziren; ikusi zuten boxeoaren ez dela agresibitate kontu bat, prestaketa fisiko oso konplexoa baizik.

Horra hor, beraz, kirola egiteko aukera berria eta ezberdina Oñatin. Astean ordubeteko bi saio izango dira, eta 14 laguneko bi talde osatzea da asmoa. Informazioa eta izen-ematea Indar gimnasioan (Bidebarrieta kalea 8) edo 605 71 75 21 zenbakira deituta.

Mendi eta Eski Irteerak Aloña Mendirekin

MENDI IRTEERA / OTSAILAK 21

URDAIBAI (ZELAIETA-OMA-ZELAIETA)

Otsaileko irteerako ibilbidea zirkularra izango da Urdaibai inguruan. Zelaietan abiatu eta Oma-ko basoa zeharkatu ondoren, Zelaietara itzuliko dira. Luzeera: 16,5 km. (5 ordu inguru); 900 m.-ko desnibela. Zailtasunik gabe. Irteera goizeko 8etan, postetxe parean. Otsailaren 18a baino lehen eman behar da izena Aloña tabernan. Bazkideak 10€; ez-bazkideak 13€, langabetuak 5€. Federatuta egon behar da.

ESKI ZEHARKALDIA (Candanchú-Astún) / MARTXOAK 5-6

Candanchú-Astún inguruetan egingo da zeharkaldia, gidari profesionalen zuzendaritzapean. Izena emateko epea: otsailak 22 (plaza mugatuak). Prezioa: 70€ (aterpetxean pentsio erdiko egonaldia barne). Beharrezko materiala: eskiak, kutxillak, larruak, eski botak, bastoiak, pioleta, kranpoiak, ARVA, pala eta sonda (materiala behar izanez gero, Mendi sailean eskatu). Izen-ematea: asteazkenetan Aloña Mendiko egoitzan (19:30-21:00) edo alonamendi.mendi@gmail.com

Euskadiko Kros txapeldunak



Aloña Mendiko korrikalarietan lan bikaina egin zuten Lasarteko krosetan. Kadete mailako taldeak (Eritz Campo, Beñat Guri-di, Gexan Anduaga, Beñat Madina, Ander Biain, Aitor Monasterio, Arkaitz Fragua eta Jon Señó) Euskadiko txapelketa irabazi zuten. Bestalde gizonen senior mailako taldea Euskadiko azpitxapeldun geratu zen eta otsailaren 28an Madrilan jokatu den Espainiako txapelketarako sailkatu da.

Bost domina Euskadiko Igeriketa txapelketan

Lan bikaina egin dute Aloña Mendiko igerilariek Euskadiko neguko Junior mailako txapelketan. Eric Ugartek urrezko eta zilarrezko domina bana lortu zuen 50 eta 100 Libreetan. Nerea Diazek zilarrezko bi eta brontzezko domina bat eskuratu zituen, Bizkar erako 50, 100 eta 200 metrokoan. Gainera, otsailaren 6-7an Oviedon jokatu den Espainiako txapelketarako sailkatu da. Enaitz Ibañek ere lan bikaina egin zuen 100 Libreetan.



Euskal Ligara

Aloña Mendiko Jubenil eta Kadete mailako nesken taldeak denboraldi bikaina egiten ari dira, eta joan den asteburuan jokatu den Euskal Ligan jokatzeko txartela irabazi dute. Zorionak!

AGENDA

02

OTSAILA



INAUTERIAK

> **OTSAILAK 6 Egun osoan OÑATIKO INAUTERIA**
Goizeko 1,30etan hasita, kalez kale ibiliko dira ehunka herritar kegun osoan. Amaiera ekitaldia 20:00etan Foru enparantzán.



> **OTSAILAK 7 18:30 LUZAIDEN DANTZAK**
Oñatz dantza taldearen eskutik Aita Madina txistulari taldeak eta musika eskolako soinu-joleek lagunduta.

KIROLAK

> **OTSAILAK 14 / 12:00 URRZKO AIZKORA**



Binakako Urrezko Aizkora txapeletako azken finalerdia jokatuko da. Eguraldia ona bada Foru enparantzán; bestela kiroldegian.

ANTZERKIA: 'DISTANCIA 7 MINUTOS'

> **OTSAILAK 26 SANTA ANA, 22:30**

Titzina Teatro taldearen eskutik 'Distancia 7 minutos' antzezlanak ikusi ahal izango dugu. Epaila gazte baten eta bere aitaren arteko gogoetak kontatzen ditu, justiziaz, matasunaz, destinoaz...zer pentsatua emateko. Sarrera: 5€ (bibe.me)

PAILAZOAK

> **OTSAILAK 9 / 17:00 PATXIN ETA POTXIN**
'Herriko Jaiak' ikuskizuna Patxin eta Potxin pailazoaren eskutik kiroldegian. Aforoa mugatua izango da. Doan.



KONTZERTUAK

> **OTSAILAK 12 / 22:30**
'BI BALA' GAZTETXEAN



Bertso-rock estiloa jorratzen du 'Bi Bala' taldeak. Euskaldunon kontraesanei buruz kantatzen dute, ostiak eta muxuak banatuz.

> **OTSAILAK 26**
'NAIZROXA' GAZTETXEAN



Pasai-donibaneko taldea, azken hamarkadako hard-core talderik onenetakoa. Zuzeneko gordina eta bizia, disko-festa giroa.

> **OTSAILAK 28 / 19:30**
AZKAITER PELOX
PAKO TABERNAN



Unai Azkarate bergararrak 2004an sortutako proiektua da Azkaiter Pelox. *Rockabilly, soul, blues, funk* eta *swing* estiloak landuz. Aitor Aranburu baterajolea eta Ion Zabaleta baxujolearekin ari da egun, hirukote formatuan.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11-15 • Faxa: 943 71 82 50



'Ziklomorphosia'
diskoa
aurkeztuko du
Sorkunek

GASTRONOMIA

> OTSAILAK 5

SAHARAKO SUKALDARITZA DASTAGAI GAZTETXEAN
Oñatin bizi den sahararren eskutik bertako gastronomia ezagutu eta dastatzeko aukera egongo da.

HITZALDIK

> OTSAILAK 16 / 17:30

'LA EMPATIA EN LAS PERSONAS'

Pake Leku elkar-
teak antolatuta,
bertako aretoan.
Hizlaria: Joxan
Larrañaga, Oñatiko parrokoa.



DOKUMENTALA

> OTSAILAK 19 / 19:00

'A UN PASO'

Nafarroako fusilatuen senitar-
teko elkartearen eskutik,
gera zibilaren eta frankismo-
aren biktima izan zirenen le-
kukotasunak jasotzendituen
dokumentala aurkeztuko du
Joseba Ezeolazak kultur et-
xean, 19:00.

KONTZERTUA: 'SORKUN'

> OTSAILAK 27 GAZTELEKUAN, 22:30

Sorkun Rubio (Erreterria,
1977) 'Sorkun'-ek
Ziklomorphosia izeneko
bere bakarkako azken
lana aurkeztuko du
otsailaren 27an
Gaztelekuan. *Rock*
doinuetatik pittin bat
aldenduz, *funk*, *jazz*, *soul*
eta *reggae* estiloko
abestiak bildu ditu disko
berrian. Testuetarako
Eider Rodriguez eta
Harkaitz Cano idazkeen
eta Iñigo Legorbururen
laguntza izan du. Sarrera:
5€

LIBURUAK

> OTSAILAK 26 / 18:30

'BURDIN ELORRI ARANTZETAN...
DENBORA JORRATZEN'
Alakanten preso dagoen Jo-
seba Arregi 'Azpilleta'k plaza-
ratu duen liburua aurkeztuko
dute Antixena gaztetxean.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK




CD Musika
'Blackstar'



CD Musika
'Zure aurrerari penalak'



Liburua
'Berrikuntza politikoa'



Komikia
'Nork hil zuen Andoni Egaña'



Haur liburua
'Besarkada'



Haur liburua
'Lur eta Amets. E.H. Historia'

MERKATU TXIKIA

- > **Duplexa** salgai erdialdean. 150m² baliagarri dituen etxea; 17,50m²ko garaje itxia eta 100m²ko lorategia. Prezioa: 325.000€. Deitu: 609074127 / 649887917
- > **Garajea** salgai Ugarkalde 5-6an (18m²). Prezioa: 20.000 euro. Deitu: 647515257 / 610751017.
- > **Etxea** alokatzen da Goiena kalean. Berria, estreinatzeko. 3 logela, 2 bainugela, terraza eta garajea aukeran. Deitu: 678711405 (Jose)

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Otsailak 10, 11, 19, 20, 21 eta 29, eta martxoak 1.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Otsailak 4, 12, 13, 14, 22 eta 23, eta martxoak 2 eta 3.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Otsailak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25, eta martxoak 4, 5 eta 6.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Otsailak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28, martxoak 7, 8.

caravanas  oñate



• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zohakiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 60

www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zohakiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

JAKINGARRIAK

> Lazarragatarrak

Oñatiko historiako leinu garrantzitsuenetakoa izan zen Lazarragatarrena. Etxe Aundi baserria izan zen beraien oinetxea, eta Garibaitarrekin batera Ganboatarren buruzagitza partekatu zuten Oñatin.

Abizenaren etimologiari dagokionez interpretazio ezberdinak daude. 'Poeta' goitizenez ezaguna izan zen Joan Perez Lazarragakoaren arabera 'Ela zaharra' (abizen zaharra) dago jatorrian. Iñaki Zumalde historialariaren ustez 'Elei-zar-aga' (eliza zahararen tokia) da bere adiera, ondoko San Pedro ermita zaharri erreferentzia eginez. Juan Carlos Guerraren iritziz berriz, 'Elea-zar-aga' (ganadutegi zaharra) esan nahi du.

Lazarragatarren leinua Gebaratarren itzalean (hauek ere Ganboatarrak) gartu zen XV. mendetik aurrera. Pedro Pérez Lazarragak (gerora Bidaurretako monasterioa eraiki zuen Juan Lopez Lazarragaren aitona) Oñatiko kondearen zerbitzura aritu zen. Alkate Nagusia, Gebaratarren etxeko gobernadora, eta gerora Oñatiko jauna izango zen Iñigo de Gebararen haurtzaina izan zen, besteak beste, eta berarekin batera hasi zen Lazarragatarren itzala zabaltzen, Oñatin ez ezik, baita Arabako lautadan ere. Berak erosi zuen Larreako dorrea 1439an.

Arabako eta Gipuzkoako historian zeresan handia izan zuten pertsona ugari (diputatuak, alkateak, funtzionarioak...) aurki daitezke Lazarragatarren ondorengoen artean, baina Oñatiko ikuspegitik Juan Lopez Lazarraga izan zen, zalan-tzarik gabe, garrantzitsuena. 1440 inguruan jaio zen (ezin izan da data zehaztu) plazako Lazarraga jauregian. Errege Katolikoaren kontadore nagusi eta idazkari izatera iritsi zen, eta Bidaurretako monasterioa eraiki zuen Juana Ganboa bere

Etxe Aundi baserria, Lazarraga leinuaren oinetxea (Indalecio Ojanguren. Gipuzkoako artxibo orokorra). Behean, Bidaurretako monasterioa, Juan Lopez de Lazarragak eraikia 1510ean



bigarren emaztearekin batera 1510ean, beraien hilobia izan zedin. Valladoliden hil zen 1518an.

Juan Perez Lazarraga gortera iristek izena eta ospea ekarri zizkion Lazarragatarren familia osoari. Sozialki eta ekonomikoki hazi egin ziren, eta hortik aurrera asko izan ziren koroarentzat lan egin zuten familiako kideak, Oñatiko kondeen ondoan, eragin ahalmen handia eskuratuz, gizarte nahiz politika mailan. XVI. mende amaierarako Arabako lautadako familia boteretsuenetakoa izatera iritsi zen.

Denborarekin desegin egin zen Lazarragatarren leinua, baina azken urteotan protagonismoa berreskuratu dute, 2004an agertu zen 'Lazarragaren eskuizkribua' dela eta. Juan Perez Lazarragak (1547/48-1605), 'Poeta' goitizenez ezaguna zen Larreako jaunak idatzitako literatura lanen bilduma da; artzain nobela bat eta poema nahiz kanta bilduma bat.

XVI. mendetik iritsi zaigun euskarazko testu bakarrenetakoa da, eta Hego Euskal Herriko zaharrena. Garrantzitsua oso euskal hizkuntzalaritzaren aldetik, Arabako euskalkia eta mendebaldeko euskararen historia argitzeko. Euskal Herria (*eusquel erria*) izena dakarren lehen idazkia ere bada.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua


- Manikura eta Pedikurak
- Solariluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behean | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

Esteban de Garibay
eta Arantzazu

>Esteban de Garibay y Zamalloa (Arrasate, 1533-Madrid, 1599) XVI. mendeko historialari ospetsuenetakoa izan zen. Espainiako lehen historia unibertsala idatzi zuen eta Felipe II.aren kronikaria izan zen.



Arrasaten jaio bazen ere, jatorriz Oñatikoa zen, Garibaitarren familiakoa, eta lotura estua izan zuen Oñatirekin eta, batez ere, Arantzazurekin, Iñaki Zumaldek Oñate (1950) aldizkarian azaltzen duen moduan.

Debozio berezia izan omen zuen Arantzazuko Amarekiko. Hala, Toledon ikasten ari zela, gaitotu eta hilzorian egon zen garaian, bere ama oinutsik joan zen Arrasatetik Arantzazuraino, eta horri esker sendatu omen zen.

Espainiako historia idazteko bi urte (1565-1566) eman zituen Arantzazun, eta kapitulu oso bat eskaini zion Arantzazuko amaren agerkundeari. Garibairen ustez ama birjinak ekarri zuen barealdia leinuen arteko borroketara.

1572an, Amberesen bi urte eman ondoren, Euskal Herrira bueltan egin zuen aurreneko gauza Arantzazura joatea izan zen, eta bere lehen ezkontzako seme bakarra frantziskotar egin zen Arantzazun.

Araotz

> Jerardo Elortza

Baserri-giroko auzoen artean, herrigunetik urrutien kokatzen dena izan arren, zabalenetakoa da Araotz eta, oraintsura arte, jendetsuenetakoa. Araba-mendi, Andaroto, Ugaztegi eta Orkatzategiko erripetan hedatzen da. Aldapa horietatik abaniko moduko bat egiten duen errekatxo-sare trinko bateko urak jaisten dira Jaturaberaino, han Gesaltza-Arrikruzeko leize-zulo sakonen barnealdetik datorren Arantzazu-Artixa errekararekin elkartzeko.

Jaturabeko arroila Oñatiko tokirik ikusgarrienetakoa da: presa, zubipeko errota eta makinetea, ur-saltoen indarra aprobetxatzeko; Sandailiko ermita xaharra kobazuloko habian txertatuta; kare-haitzezko horma ia bertikalak, eskalatzailen zoramenerako; edota espeleologoen paradisu diren inguruko harpe eta leize erakargarriak. Mendizintzur estu horretatik du Araotzek sarbide-irispide nagusia, baina ez bakarria. Gorago aurkitzen diren Aitzulo edota Araozta-Aitzgain aldeko parajeak ere zoragarriak ditugu, benetan.

Araotz auzune ugarik osatzen dute: Madina, Ugaran, Zubia, Araotz-Urruti, Agerre, Jausoro, Elizondo, Uriarte eta Aizkorbe izenekoak etxe-multzo

AUZORIK AUZO

**Arrazoi
askorengatik
da Araotz
auzo
interesgarri
eta
erakargarria**

txikietan pilatzen dira. Auzune horietako askok zeuzkaten *errekak*, hau da, arropak garbitzeko ur-askak euren puxeta-harri eta guzti. Aparte eta bakarti samar geratzen dira Gernetan irauten duten baserri biak eta Lurgorrieta. Guztira, ia laurogei etxebaserri. Gaur egun zutik eta zainduta mantentzen dira gehienak, baina aste osoan jende gutxi bizi da auzoan.

Eliza ederra dauka Araotzek, harlanduzko eta zurezko egitura bereziarekin; kanpandorre dotorea eta elizpe babesgarria ditu San Migel izeneko parrokia horrek. Eliza auzoaren erdigune antzeko bat izan da urte askoan: inguruan baitaude bertan izan diren eskolak, abade-etxea, sakristauaren etxebizitza, pilotalekua, bolatokia eta saloia, orain auzo-elkartea dena. Ermitarik ere ez da falta izan Araotzen: nahiz eta, gaur egun, Sandaili eta Ugaztegiko Santi Krutz soilik geratu, sasoi batean baziren beste hainbat: hormak oraindik zutik dauzkan Andra Mari; Errota Barri ondoan zegoen Santa Ana; edota Gerneta baino gorago omen zen San Antonio.

Euskal abizen askok dute jatorria Araotzen: oso bertakoak diren Elortondo, Zumalde zein Madina eta bere eratorriak (Madinazkoitia, Madinagoitia eta Madinabeitia); beste toki batzuetakoak ere izan daitezkeen Aizkorbe, Enparantza, Jausoro, Otalora, Uriarte edo Zubia; eta bakanagoak diren Amiama edo Araotz bera.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Aitzariak

Berezaio Ind. 10 5ta. Marina, 6
Tel. 943 78 14 64 Tel. 943 78 02 21

BILKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPATATZARIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriño auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Bizitzeko egia, egurrezko lapezon



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Kontu kontari

SORGINZULON¹

Sasue batian ba ei eguen sorgin bat Sorginzulon, eta hori dala-ta, inguruko danak billurrez aidian bizi ziran. Egun batian auzoko neskatillak susto bat emutia pentsau euen sorginorri eta, Kortakogain parian alkartu, eta han fan ziran Sorginzulora hango bizilaguna tentaittera, ia zer pasaitten zan. Danetatik balientiena zana aurreratu egin zan, bestiak atzeratuago geratu ziran bittartian, eta orduan... barruan zaixo² eguen sorgintzarrak haren hotsa sentiu orduko, diar egin otsan diabruari:

- *Hel hakixo, hel hakixo, ahal bahakixo*³

Eta diabruak erantzun:

- *Bai, aldian ezpaleko erruda eta aapixo*!⁴

Harrezkero sorgiñorren barririk eztakogu!



¹ Arantzazu auzuan, Aldaola errekan gora, San Juan Artixaren paretxuan.

² Erne

³ Fan berarengana eta obatu, ahal badok.

⁴ San Juan egunian bedeinkaketan ziran landarak. Hareikin "kuttunak" (amuleto) egitten ziran, afieltxuarekin bularran lotuta edo lepotik txintxiliz eruaten ziranak, gauza txarretatik defendituko balixo eueilla uste zalako (sorgiñak eta diabruak tartian). Sorginzulora fandako neskak be euren kuttunak bistan eruan zittuain, bazan ezpazan be!

Goguan hartzekuak

SIGLAK (1)

Egunero-egunero makiña bat siglaz balixaitten gara talde, erakunde, alderdi edota bizitzako hainbat gauza adierazoteko, baiña tamalez euskeraz gabiltzenian be sigla horreik erderaz jaurtitten dittugu, gehixenetan halaxe entzuten dittugulako kalia eta hedabidietan. Ahal dan neurrixan, behintzat, horri bueltia emuten hasteko, ikusi dagigun euskeraz zela esaten diran askotan ebalten dittugun sigla batzuk:

Erderaz	Euskeraz	Esanguria
UE (Unión Europea)	EB	Europar Batasuna
MCE (Mercado Común Europeo)	EEE	Europako Ekonomia Elkartia
EEUU (Estados Unidos de América)	AEB	Ameriketako Estatu Batuak
CAV (Comunidad Autónoma Vasca)	EAE	Euskal Autonomia Erkidegua
UPV (Univerdidad Pública Vasca)	EHU	Euskal Herriko Unibersidadia
EITB (Radio Televisión Vasca)	EITB	Euskal Irrati Telebistia
GV (Gobierno Vasco)	EJ	Eusko Jaurlaritza
EUDEL (Asociación de Municipios Vascos)	EUDEL	Euskal Udalen Elkartia
DNI (Documento Nacional de Identidad)	NAN	Nortasun Agiri Nazionala
IVA (Impuesto Valor Añadido)	BEZ	Balixo Erantsixaren gaiñeko Zergia

EUSKERAZ EGOGI

GAZ adizkixa

Adizki hau akatsa baiño, geure hizkera barruko beste aldaera bat dala esango geke. Herritarra zer auzotakua edo giza-moltzukua dan, holako aditz forma entzuten da geure herrixan:

- **gagoz > gaz**
- **xagozak > zazak / zatzak / zautzak**

EGON aditza

Oraiña		
	Ofiziala	aldaeria
Gu	gagoz	gaz
	<i>gagozak</i>	<i>ga(t)zak</i>
	<i>gagozan</i>	<i>ga(t)zan</i>

Lehena		
	Ofiziala	aldaeria
Gu	gegontzen	gazen
	<i>gegontzan</i>	<i>ga(t)zaken</i>
	<i>gegontzanan</i>	<i>ga(t)zanan</i>

Oraiña		
	Ofiziala	aldaeria
Hareik	dagoz	dagoz
	<i>xagozak</i>	<i>za(t)zak</i>
	<i>xagozan</i>	<i>za(t)zan</i>

Lehena		
	Ofiziala	aldaeria
Hareik	egozen	egozen
	<i>xagozan</i>	<i>za(t)zaken</i>
	<i>xagozanan</i>	<i>za(t)zanan</i>

-Gu konforme gaz.

-Han gazen gu autobusari begira, eta zela etzan agertu taxisa hartu bihar izan geben.

-Hemen ga(a)zenak zer esaten dogu, eskurtsiñora bai ala ez?

-Parisen gatzaken ha pasau zanian.

-Ederrak zazak, ba, Patxik ekarritako perretxikuak!



la asmaitten dozuen!

Gaurkuan alkarlanian aztertu eta komentauko dogu antxiñako fotografia. Aspaldikua da, duda barik. Zenbat urte botaten xatzue? Ehundik gora? Baiña zenbat gehixago? Argibidetxo batzuk emungo dotsuegu: **etxe, baserri eta eraikin batzuk zutik jarraitetan daue; beste asko betiko eraitsi eta ezkutau dira.** Argazkixa kalidade onekua ezpada be, ariketa honetarako oso interesantia dala pentsaitten dogu. Erreparau ondo eskiñitako pistairi.

Zutik irauten dauen batzuk: **unibersidade zaharra; agustiñuen etxia; Santa Ana konbentua zana; San Juan kale eta Kale Zaharreko etxe-illarak, nahikua aldatuta, hori bai; Aingeru Guardakua; Etxebarrialde; Goribargoitti; Olalde; Garaiñeko hasierako fabrikia; Santa Kataliña; Antzokua eta Urbieta, bestiak beste.**

Bota edota ordezkatu diranak: **sasue bateko ospitala eta abadetxia; Gorriñetxe; Goizeko Izarra; Pilar Enea; kurtiderixia; Goribar Zaharra; Aloña alde eta Ibaiondo, esate baterako**

Eztago, jakiña, tren-estaziñorik; Ibarren ez ezik, Torrealden eta ixa Goribar auzo danian be soruak dira nagusi; kolore argixagua dakoinak gari-saillak izan leike; **ortu batzuk be agiri dira.** Harrezkero, **majo bete xaku inguru horreik lantegiz, kamiñoz eta bestelako eraikiñez.**

Horrenbestez, eta aurreratu dittugun argibidiei jarraituaz, **animaitten zarai parte hartzera jolas honetan?** Gehixen asmaitten dauenareztat **sorpresa-sarixa egongo da.** Erantzunak helbide honeittako batera bialdu zeikei: kontzejupetik@onati.eus edota Kontzejupetik aldizkarixa, Bidaurreta Torria, Olakua auzua, 20560 Oñati (Gipuzkua).

J. E.

Zuzenketak: Suerte haundixa eduki dogu argazki zaharren sail honetan orain hurrenguan agertu geben fotografiarekin. Ezezaguntzat jotzen gittuan bi gazte identifikatu ahal izan dittugu eta hirugarren baten benetako nortasuna jakin dogu. Hona datu barrixok: *erdiko illarako lehenengua ezkerretik, otzariakin daguena, Doroteo Kortabarria Isasmendi da, San Juan kaleko Gorrdonekua; aurrekuaren ondokua, buruan zapixa dakona, Felipe Aberasturi Azkoitia da, Kale Zaharreko Zezpalekua, gerraostian Guatemalara fan zana; eta illara bereko laugarrena, bi bihatz bendauta dakona, Agustin Egaña Calles dogu, Kale Barriko Calles tarrena.* Milla esker informaziñuagatik Ana Mari Kortabarria, Maria Jesus Aberasturi, Nati Egaña eta Glori Irizarreri.

60. urteurrena

ESKERRIK ASKO !!

ATSEDEEN-SISTEMAK?

APAINKETA?

BESAULKIAK?

SOFAK?

ALTZARIAK?



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 71 10 12
ARRASATE



centro hogar MIERLES

ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11
ARRASATE



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03
ARRASATE



MENDEURREN 2
TEL.: 943 88 65 88
BEASAIN



60.URTEURRENA DELA ETA AMUEBLADORA MONDRAGONESA
TALDEAK, BIDAI BAT ZOZKETATUKO DU !!



*CENTRO HOGAR MIERLES, SOFALERU ETA KOLTZOILEKU DEKORAZI
*BEASAINO KOLTZOILEKU DEKORAZI (ATERBIRU) BAT LAZKETE BATEAN ZOZKETATUKO DU